

: =)

Zizur Nagusiko Aukera
Berdintasunerako
I. Plana

2006ko azaroa



**ZIZUR NAGUSIKO
UDALA**

:=) | Zizur Nagusiko Aukera
Berdintasunerako
I. Plana

2006ko azaroa



**ZIZUR NAGUSIKO
UDALA**

Argitaratzailea: Zizur Nagusiko Udala. Hiritarrendako Zerbitzuak.

Egilea: Ana Diez de Ure

Diseinua: HEDA Comunicación

Inprimatzailea: ONA Industria Gráfica s.l.

Lege gordailua: 2850 / 2006



Aurkezpena

Zizur Nagusiko Udalak, lehendabiziko aldiz, emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alde lan egiteko konpromisoa hartu du. Herriko **Aukera Berdintasunerako I. Planak** Udala behartzen du hamar lan alorretan banatuko diren 31 helburu eta martxan jarriko diren 152 ekintza positibo betetzera. Ekintza praktiko horiek guztiek egun dugun bereizkeria zuzentzeko asmoa dute.

Zizur Nagusiko **Aukera Berdintasunerako I. Plan** honen onarpena eta abian jartzea gizarte-zuzentasunezko gertakaria da, lehenik eta behin biztanleen %50a baino gehixeago diren emakumeek eskatua eta haiei zor zaiena. Horiek dira oraindik ere langabezia tasarik altuenak dituztenak, etxeko lan eta mendekotasuna duten pertsonen zainketaren zama eta erresponsabilitate handiena dutenak. Zizur Nagusiko emakumeek, gainera, genero-indarkeria neurri nabarmenean sufritzen dute, eta bizitzari eta lanari egiten dieten ekarpena baztertuta geratzen da ikusezin bihurtzen dituen kultura androzentriko baten eraginez. Administrazio publikoak arazo larri horien aurrean erantzunak eman behar ditu plan eta ekintza eraginkor eta koordinatuak abiaraziz. Baina gizonen berriak ere I. Plan honen protagonistak dira, tradizioz emakumezkoen ezarriak izan zaizkien balioak aldatu eta bereganatzea onuragarria dela ikusi duten gizonenak, hain zuzen ere. Zainketaren garrantzia ahazten ez duten gizonenak eta etxeko lanak eta familiaren ardura partekatzen dituztenak, genero-indarkeriaren aurrean isiltzen ez diren eta indarkeria hori salatzen duten gizonenak. Berdintasunean hezten hasi diren gizonenak ere zuzentzen zaie I. Plan hau, ongizatea irabazteko pribilegio gutxi galtzen dutela baitakite.

Nafarroako Emakumearen Institutuaren diru-laguntza jaso duen **Aukera Berdintasunerako I. Plan** hau jarraitzen zaio berdintasunaren inguruko legeak egin dituzten Europako eta estatuko erakundeek adierazitako ildoari.

I. Plan honen onespak Udala, Zizur Nagusian, berdintasunaren eragile bihurtzeko aukera sortzen du. Gure herriko emakumezko eta gizonenak antzinako rolak eta bereizketak zuzentzeko prest egotea espero dut, demokrazia paritario baterantz jotzeko. Benetako berdintasunaren lorpena, gaur egun, gizarte demokratikoen erronka garrantzitsua da.

M^a Jesús Nieto Irastorza

Zizur Nagusiko Hiritarrendako Zerbitzuen Batzordeburua



Índice

- 07 Funtsa: historia pixka bat eta erreferentziako lege-markoa
- 09 Emakumeen egoerari buruzko azterketa Zizur Nagusiko udalerrian
- 15 Planaren printzipio estrategikoak: ekintza positiboak, genero zeharkakotasuna eta gizarte partaidetza
- 17 Esku-hartze arloak: helburuak, ekintzak eta parte hartuko duten erakundeak
 - Emakume eta Berdintasun Arloa 17
 - Udal Arloa 20
 - Gizarte Zerbitzuen eta Lankidetzaren Arloa 22
 - Kultura eta Euskara arloa 24
 - Kirol Arloa 26
 - Gazteria Arloa 28
 - Hezkidetzaren eta Prestakuntzaren Arloa 30
 - Osasun Osoa eta Ingurumen Arloa 32
 - Emakumeen aurkako indarkeriaren Arloa 34
 - Lan Arloa 37
- 40 Kontzeptuen definizioa
- 44 Kronograma/Egutegia
- 45 Planaren ebaluazioa



Funtsa: historia pixka bat eta lege-markoa

Aro Garaikidea Emakumeen Aroaren hasiera ere bada. Izan ere, XVIII. eta XIX. mendeetan, funtsezko garrantzia duten bi gertakari gertatu ziren, askatasun pertsonalen konkistarako. Batetik, Frantziako Iraultza (1789) eta, bestetik, pentsamoldean eragin handi-handia utzi zuten Argien Mendea eta Ilustrazioaren ondorioak. Mende horietan arrazoiak esparru publikoa eta pribatua konkistatu zuen. Oraindik ere, emakumeak hirugarren mailako herritarrak ziren, baina orduantxe hasi zen beren askapenerako bidea. Hala ere, duela gutxira arte itxoin behar izan dute, harik eta arlo guztietan finkatu diren eskubide guztiak behin betiko konkistatu arte.

XIX. mendean, nahiz-eta emakumeak -oro har- etxe zokora mugatu zituzten, lehenbiziko mugimendu feministak sortu ziren: sufragistek emakumeen boto eskubidearen alde borrokatu zuten Ingalaterran eta Estatu Batuetan. Ondoren, XX. mendearen hasieran, emakume ilustratuen lehen elkarteak sortu ziren -gehienak maistrak-, hezkuntzarako eskubidea aldarrikatzeko. Bestalde, alderdi sozialistetan eta anarkistetan afiliatutako emakume haiek izan ziren lanerako eskubidearen alde borrokatu zuten lehen emakumeak. Beren ahotsa ozenki helarazi zuten lehenak, alegia.


Presio politikoa eta borroka aktiboa -azken mendean emakumeen mugimendua izatera pasatu dena- funtsezkoak izan dira, emakumeen eskubideak aintzat hartzearen aldeko iritzia sorrarazteko, bai eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatu eta aitortu duten legeak abiarazteko ere. Eta hori halaxe gertatu da munduko herrialde askotan. Alde horretatik, berdintasun politika horiek aintzat hartu eta aitortzeko, funtsezkoa gertatu zen Emakumeen IV. Mundu Batzarra, 1995ean Pekinen egin zena. Topaketa horrek aintzat hartu zituen emakume mugimendu aunitzek gizarte demokratikoei -bizitoki zuten gizarte demokratikoei- aldarrikatzen zieten, hots, modu eraginkorrean aukera berdintasunaren eta eskubideen aldeko politikak susta zitatzela, printzipioen eta legeen bitartez. Horretarako, Ekintzarako Plataforma ezarri zen eta hauek izan ziren bere erronka nagusiak: batetik, premia osoz neurriak hartzea, pobrezia feminizazioari aurre egiteko -zabaltzen ari baitzen- eta, aldi berean, emakumeen independentzia ekonomikoa sustatzea. Beste alde batetik, ahalduntzea lortzearen aldeko borroka jarri zen mahai gainean. Hitz hori ingelerazko empowermen hitzetik dator, hau da, emakumeek duten eskubidea, estamentu pribatu eta publiko guztietan berdintasunez erabaki eta parte hartzeko. Mundu Batzar horretan, beste termino bat ere sortu zen: mainstreaming edo zeharkakotasuna, hau da, aukera berdintasunaren ikuspegia txertatu beharra gobernuek eta administrazioek egingo duten politika publiko guztietan.

Europako Batasunaren funtsezko helburuen artean dago gizonen eta emakumeen arteko berdintasun juridikoa eta, alde horretatik, bete beharreko araudiak onetsi ditu, xede hori garatzeko: azken buruan, erabaki, gomendio eta araudi horiek dira gizonen eta emakumeen arteko Aukera Berdintasunean sekulan osatu den gorputz juridikorik aurreratuen eta osatuena. Legezko oinarri horretaz gain, Europako Batasunak orain arte lau ekintza-programa ere abiarazi ditu, gizonen eta emakumeen arteko Aukera Berdintasuna Europan sustatzeko. Europako bilakaera arau emaile eta politikoaren une gogoangarrie-

nak honela labur daitezke: Erromako Ituna (1957), Parisko Gailurra (1972) eta Amsterdango Ituna (1997).

Arauzko garapen horren emaitza gisa, Europako Batasunak bost ekintza-programa onetsi ditu Aukera Berdintasuna bultzatzeko. Gaur egun, indarrean dago Estrategia Markoa esaten zaiona, bai eta V. Ekintza-Programa ere, 2001etik 2006ra artekoa. 1983an, Emakumearen Institutua eratu zen Madrilen. Lan eta Gizarte Gaien Ministerioaren mendeko erakunde autonomoa zen eta, gaur egun, ministerio horren barnean dago. Ondotik, Autonomia Erkidegoetan, tokian tokiko Institutuak sortu ziren, berdintasunaren aldeko lana egiteko helburuz, bakoitza bere lurraldean, jakina. Nafarroari dagokionez, 1995ean, Nafarroako Emakumearen Institutua sortu zen. Hasiera hartan, Lehendakaritza Departamentuaren mendeko erakunde autonomoa zen. Gaur egun, berriz, Gizarte Ongizatea, Kirol eta Gazteria Departamentuaren barnean dago. Hurrengo urtean, 1996an, Nafarroako Emakumearen Kontseilua eratu zen. Erakunde aholku emailea da, emakumeen ordezkariak egituratzeko, eztabaida eta komunikazioa eragiteko eta, azkenik, Nafarroako Emakumearen Institutuari eman zaizkion zereginetan partaidetza markoa sortzeko.

Udalak eta toki udalbatzak herritarrengandik hurbilen dauden administrazio erakundeak dira. Beraz, oso esparru egokia da aukera berdintasunaren eta sexuen errespetu zorrotzaren aldeko ekimenak abiarazteko. Horretarako, ekintza positiboa kontuan hartzen duten politikak jarri behar dira martxan eta, aldi berean, sexuaren gainean dauden desberdintasunak ezabatu behar dira. Udalen lege-araudiari dagokionez, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legearen 28. artikulua baimena eman zien udalerriei, emakumea sustatzearen arloan beste Administrazio Publiko batzuei dagokien jarduketaren lan osagarriak egiteko. Hortaz, toki administrazioek badituzte eskumenak, beren herrietan berdintasunaren aldeko helburu zehatzak eta jarduketak arautzea xede duten Berdintasun Planak egiteko. Horrenbestez, agiri hau legezko marko horretan funtsatua dago eta harekin bat egingen da jarduketara oro.



Emakumeen egoerari buruzko azterketa Zizur Nagusiko udalerrian

Zizur Nagusia udalerrri aberatsa da eta Udalerri 10 izendura eman diote, omen handiko banku-erakunde zenbaiten azterlan sozio-ekonomikoen arabera. Iruñerrian dago eta sozio-demografiari begira gorantz ari da nabarmen. Herriak hainbat administrazio izaera izan ditu 1087an sortu zenetik hona. Horrela, lehenbizi, lekua izan zen, gero etxaldea, geroago hiribildua eta Zizurko Zendeako kontzejua. 1992ko azaroaren 6tik aurrera, udalerrria da. XX. mendearen bigarren erdian, inoiz ez bezalako garapena gertatu da hirigintzan eta, ondorioz, 13.263 bizilagun izatera iritsi da Zizur Nagusia. % 49,78 gizonezkoak dira eta % 50,21 emakumezkoak.

Aukera Berdintasunaren aldeko Lehen Plan honek hainbat irizpide izan behar ditu kontuan, egokiro ezarriko bada: eraginkortasuna, operatibotasuna, xede dituen herritarren beharretara egokitzea, egoera sozio-ekonomikora moldatzea –bai eta egoera horrek emakumeengan sortzen dituen disfuntzioak ere- eta, bereziki, eragin behar du sexu desberdintasunak eta bazterketak emakumezkoen artean sortu dituzten defizit edo beharretan. Herriko emakumeen beharren eta egoeraren beraren gaineko diagnostikoa egitea da gizarte desberdintasun horri aurre egiteko lanabesetako bat. Izan ere, beste egoera eta toki batzuetan bezala, Zizur Nagusian ere halakoak gertatzen dira behin eta berriz. Horretarako, Zizur Nagusiko Udalak ondoko lan hau enkargatu zuen 2005ean: “Zizur Nagusiko emakumezkoen eta gizonezkoen gizarte egoerari buruzko diagnostikoa” (2005), Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Lan Departamentuaren Genero arloko Ikerketa Taldeak egindakoa. Lan hori planaren oinarritzko eta funtsezko iturria izan da. Bada, hemen aurkeztuta dauden ondorioak lan horretatik datoz eta, alde horretatik, gure abiapuntuak dira Zizur Nagusiko I. Aukera Berdintasun Plana egiteko eta denboran abiarazi eta ezartzeko:



Populazioa

- Zizur Nagusiko herritarren % 50,21 emakumezkoak dira. Guztira, 6.660.
- Zizur Nagusiko 15 urtez beheko gazteen indizea ia bi aldiz da Nafarroako indizea.
- 65 urtez gorako emakumezkoen indizea gizonezkoena baino altuagoa da, emakumeak gizonak baino urte gehiago bizi baitira.
- Zizur Nagusiko emakumezkoen % 48,2 ezkontuta daude; % 45,7 ezkongabeak dira, %3,1 alargunak eta % 2,9 bananduta daude. Emakume bananduen portzentajea handiagoa da Nafarroako batez bestekoa baino (% 2,4).
- Iruñeko eta Nafarroako beste udalerrri batzuetako jende gazteak hornitzen du Zizur Nagusia eta, azken urteotan, baita etorkinek ere. Zehazki, etorkinak % 6,2 dira.
- Emakume etorkinen % 51,2 latinoamerikarrak dira eta % 18, berriz, Ekialdeko Europako herrialdeetakoak.



Familia

- Emakumezkoen artean, % 42,7 dira pertsona bakarreko etxebizitzak. Gizonezkoen artean, berriz, % 57,5.
- Jaiotza-tasa gordina hiru puntu hazi zen 1996tik 2001era.
- Beraz, jaiotze (% 18,2) eta emankortasun (% 56,9) tasa altuak dira, Nafarroako gainerako udalerrietan dituztenekin konparatuta (jaiotze tasa 9,8 eta emankortasuna 37,8).
- Ezkontzen % 66 erlijio bidezkoak dira.
- Ezkontza zibilen portzentajea (% 34,1) lau puntu altuagoa da Nafarroa osokoa baino.



Hezkuntza eta prestakuntza

- Gehiago dira lanbide heziketako ikasketak dituzten gizonak –portzentajeari begirata, aldiz, gehiago dira diplomaturak dituzten emakumeak (portzentajea).
- Goi mailako titulazioa duten emakumeen portzentajea eta gizonezkoena berdina da.
- Emakumezkoen arteko analfabetismorik handiena emakume pentsiodunen, erretiratuen eta ezinduen artean dago.
- Emakume ikasleek giza ikasketak aukeratzen dituzte gizonen baino hein handiagoan.
- 2001-2002 ikasturtean, unibertsitatean ari ziren emakume guztien % 32,7 lau ingeniartzatan zeuden matrikulaturik.
- % 29,2k “emakumeek beti aukeratu ohi dituzten” lanbideei lotutako ikasketak hautatu zituzten: gizarte lana, irakasle lana eta erizaintza.
- Emakumeak gizonezkoenak izan diren ikasketetan sartzen ari dira, baina gizonak ez dira emakumezkoen ikasketetan sartzen.
- Zizur Nagusiko ikastetxeetako irakasleen % 69,2 emakumezkoak dira. Gizonezko irakasle gehienak Bigarren Hezkuntzan ari dira. Ez dago gizonezko irakaslerik 0tik 3ra urte bitarteko zikloan.
- Guraso Elkarreketako ordezkarien % 82,6 emakumezkoak dira eta soilik emakumeen % 51,1 dago Eskola Kontseiluan. Guraso Elkarreketako lehendakaritza karguen % 60 gizonen esku daude.
- Ez dago ikasleen emakumezko ordezkariarik eskola kontseiluetan.



Lana


- Zizur Nagusian handiagoa da ordainsaria jasotzen duten emakume langileen portzentajea (% 61,5) Nafarroakoa baino (% 39,5).
- Emakumeen % 18,3 soilik etxeko lanetan ari dira. Gizonezkoen artean, aldiz, % 0,3 besterik ez.
- Emakumeen % 7,5 langabezian izena emanik daude. Gizonezkoen artean, aldiz, % 4,2.

- Emakumeen % 2,4 erretiratua da. Gizonezkoen artean, aldiz, % 5,3. Emakume pen-tsiodunen portzentajea % 2,2 da. Gizonezkoen artean, aldiz, % 0,1.
- Ikasketa maila goratu ahala, gora ere badoa bere jarduera portzentajea.
- Maila erdiko ikasketak egin dituzten emakumeen langabezia tasa % 10,9 da. Aldiz, ikasketa berberak dituzten gizonen artean % 3,4 da tasa hori.
- Emakume banandu eta dibortziatuen taldeak jarduera eta okupazio mailarik handie-nak ditu (% 79).
- Emakume ezkonduen jarduera portzentajea (% 66) ezkongabeena baino handiagoa da. Nafarroan, emakume ezkonduen arteko portzentajea % 44,6 da.
- Emakumezkoen langabezia tasa (% 12,2) gizonezkoena baino handiagoa da, bikoitza baino handiagoa (% 5,1).
- 16tik 24 urtera bitarteko emakumeen artean, langabezia % 18,4 da.
- 35etik 54 urtera bitarteko emakumeen artean, langabezia tasa bost aldiz handiagoa da adin bereko gizonen artean baino.
- Zizur Nagusiko emakume enplegatuen % 20,6 teknikari, profesional, zientzialari eta intelektual gisa ari dira.
- Zizur Nagusiko emakume enplegatuen % 10,3k zuzendaritza postuak dituzte admi-nistrazioan eta enpresetan; % 9,3 administrariak dira eta, azkenik, % 6,3 langile ez kualifikatuak dira.
- Lana duten emakumeen % 85,9 hirugarren sektorean ari dira, gehienak hezkuntzan, osasunean, gizarte zerbitzuetan eta merkataritzan.
- Soilik emakumeen % 13,4 ari dira bigarren sektorean. Gizonezkoen artean, aldiz, % 43,4. Gehienak ehungintzan ari dira, bai eta arte grafikoei nahiz paperari lotutako industrian ere.
- Emakumeen % 28,8 behin-behinekoz ari diren soldatapekoak dira. Gizonezkoen arte-an, aldiz, % 11,5.
- Emakumeen % 63,8 langile finkoak dira; % 4,9 enpresaburuak; % 6,1 autonomoak eta, azkenik, % 0,9 kooperatibistak. Gizonezkoen artean handiagoak dira enpresabu-ruen (% 9,9), autonomoen (% 9,3) eta soldatapeko finkoen (% 68,4) portzentajeak.
- Zizur Nagusiko Udalaren lan plantillan, emakumeak % 43,6 dira. Emakumeen plan-tillaren % 41,7 D mailan ari da. Aldiz, gizonezkoen erdia baino gehiago (% 52,3) C mailan ari dira.
- Emakumeek gizonezkoek baino portzentaje handiagoak dituzte A eta B mailetan.
- Ez dago gizonezkoen Gizarte Zerbitzuetan eta Idazkaritza Orokorrean, eta oso ema-kume gutxi ari da Udaltzaingoan, lan eta zerbitzuetan.

Osasuna

- Zizur Nagusiko emakume gehienek gaixotasunak badu zerikusia zirkulazio aparatua-rekin eta nerbio sistemarekin.
- Zizur Nagusiko emakumeek adimen osasunean eginiko kontsulten % 5,7k bazuen zerikusia elikadurarekin. Gizonezkoen artean, aldiz, kontsulten % 1,8k.





Partaidetza gizartean eta politikan

- Zizur Nagusiko elkarteetan % 89,8 arte eta kultur jardueretan aritzen da.
- Soilik elkarteetan % 2,2k du aldarrikapen-izaera.
- Zizur Nagusian oso gutxi dira gazte elkarteak eta elkarte feministak.
- Elkarte bakar batek du Aukera Berdintasuna sustatzeko helburua: Errondoa elkarte da eta 18 emakume ari dira horretan.
- Emakume gehienek elkarte mistoetan parte hartzen dute. Elkarteetan dauden pertsonen % 48,7 emakumezkoak dira.
- Elkarte gastronomikoetan oso emakume gutxi dago, zehazki elkartekide guztien % 4 besterik ez.
- Aldarrikapen tankerako Elkarteetan, gizonak % 9,5 besterik ez dira.
- Ez dago emakumerik erraldoien konpartsan eta oso gutxi Zizurko Gaitarrietan eta Galtxagorri Txarangan.
- Soilik udalerriko elkarteetan % 38,5etan emakumeak du ordezkaritza nagusia.
- Emakumeen eta gizonen portzentajea berbera da idazkari eta diruzain postuetan.
- Udalbatzaren % 41,2 emakumeak dira.
- Hiru alderditan kopuru berbera dute emakumeek eta gizonak: EB, CDN eta Aralar taldeetan, zehazki. Gainontzekoetan, gehienak gizonak dira.
- Tokiko gobernu batzarraren herena emakumezkoak dira. Eta gainera, bi emakume batzarkideek kargurik apalenak dituzte.
- Udalak dituen sei batzordeetatik lautan gehienak gizonazkoak dira: hirigintza, langileak eta barne aferak, gazteria, ogasun eta ondarea.
- Hezkuntza batzordea parekidea da eta herritarrentzako zerbitzuen batzordean emakumeak dira gehienak.
- Politika gizonak nahiago dituzte hiriaren kontrolari, langileen zuzendaritzari eta kudeaketari, eta erabaki ekonomikoak dagozkien erabakiak. Politika emakumeak betidanik emakumezkoen egokitu izan zaizkien zerbitzuetara bideratzen dira: hezkuntza eta zainketa.
- Oso emakume gutxi dago Ardoi kirol patronatuan, % 14,3 besterik ez. Kultur patronatuan emakumeak % 38,9 dira.
- Zizur Nagusian, emakumezkoen afiliazio politikoaren batez bestea % 34,4 da. Soilik Batzarrek eta EBk gaintitzen dute batez besteko hori.
- Aralarrek du emakumezkoen afiliazio portzentajerik apalena (% 16,7).



Emakumeen kontrako indarkeria

- Azken urteotan gora egin du emakumeen kontrako indarkeriak 25 urtetik beherako eta 65 urtetik gorako pertsonengan.
- Datuetan ez dago emakumeen kontrako indarkeriari buruzko argibide zehatzik, indarkeria horri aurre egiten laguntzeko. Behar diren datuak ez daude informatizatuak.
- 2000ko irailetik 2003ko abendura arte, udaltzaingoak 64 esku-hartze egin zituen

herrian gertatu ziren indarkeriazko ekintzen aurka. Gertaeren % 75etan biktimak emakumezkoak izan ziren eta erasotzaileak beren ezkontideak edo ezkontide ohiak.

- 2002an, gertatu ziren kasurik gehien: 48.
- Gertatzen diren erasorik ohikoenak fisikoak eta psikologikoak dira, eta ondoren, jazarpena, irainak eta mehatxuak.
- Kasu nabarmenak gertatu dira: semeen erasoak aitaren kontra eta, inoiz edo, alabaren erasoak amaren aurka ere bai.
- Zizur Nagusiko Gizarte Zerbitzu Oinarrizkoan –2004an-, genero indarkeriagatik atenditu dituzten kasuen % 94,1etan, biktimak emakumeak izan dira.
- Eraso hartu duten emakumeen % 62,5 espainiarra zen nazionalitatez; % 12,5 brasildarrak eta dominikarrak, eta % 6,3 ekuatortarrak eta errumaniarrak.
- Erasotzaileen % 73,3 nazionalitate espainiarreko gizona izan ziren.
- Emakume erasotuen % 68,8k salaketa jarri zuten.
- Eskatutako urrutze aginduen % 50 eman ziren.



Gizarte zerbitzuak

- Gizarte Zerbitzuen Laneratzeko Programaren onuradunen % 66,7 emakumezkoak dira.
- Gizarte Lanaren programaren onuradunen % 66,7 gizona izan dira.
- Oinarrizko Errenta jasotzen dutenen % 70 emakumezkoak dira.
- Oinarrizko Errenta jasotzen duten emakumeen % 42,9 emakume bananduak dira, gehienak seme-alaba bat dutenak. Gizona izan eta, aldiz, onuradun gehienak ezkongabeak dira eta ez dute seme-alabarik.
- Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua jasotzen duten pertsonen % 60 emakumezkoak dira.



Kirola

- 2004an, emakumeak izan ziren Zizur Nagusiko kirol jardueretan parte hartutako pertsonen % 49.
- Emakumeak dira helduentzako jardueretan gehien parte hartzen dutenak (% 88,9).
- Haurren eta gazteen artean, emakumezkoen partaidetza % 31,7 eta % 41,5 da, hurrenez hurren.
- Futbola gizonen kirola da. Mutikoen % 47 aritzen da eta, aldiz, neskatuen % 6,8 bainik ez.
- Futbolearen, txirrindularitzaren, eskubaloian eta xakean aritzen diren haur gehienak mutikoak dira.
- Aldiz, gimnasia artistikoan, erritmikoan eta kirol gimnasia aritzen diren gehienak neska dira.
- Gazteen artean, oso nabaria da sexuen bereizketa kirolak aukeratzeko: esaterako, aerobica emakumeen kirola da eta, borroka-arteak, aldiz, gizonena.

- Helduen artean, bereizketa are handiagoa da. Izan ere, emakumeek gehiago parte hartzen dute gorputza zaindu eta mantentzearekin lotura duten kirolelan, eta gizonak, aldiz, ahalegin fisiko handiagoa egin behar den haietan eta lehiakorragoak diren kirolelan.



Kultura

- Emakumeak dira Zizur Nagusiko kultur jardueretan parte hartutako pertsonen % 77,5. Neskatoen % 69,4k haurrentzako kultur jardueretan parte hartzen dute; emakumeen % 76,4k gazteentzako jardueretan eta, azkenik, % 96,1ek hirugarren adinarentzako kultur jardueretan.
- Haurrentzako antzerki, dantza eta lohi tailerretan elkartuak daude neskatoen % 70etik gora eta, aldiz, sormen tailerretan elkartuak daude mutiko gehienak.
- Gazteentzako jardueretan elkartzen dira mutilik gehien.



Planaren printzipio estrategikoak: Ekintza positiboak, genero zeharkakotasuna eta gizarte partaidetza

Konstituzioa duten herrialde demokratiko egonkor gehienetan bizi diren gizon-emakumeek legez berdintasun formala lortu dute, hau da, zuzenbidezko berdintasuna. Berdintasunaren aldeko borroka hori borroka nagusietako bat izan arren, ez da bakarra, ezta eraginkorra ere, nahiz-eta eskubideak bermatzen dituen. Izan ere, egoera hori, hots, munduaren aitzinean berdina izatearen aukera erreal hori ez da islatu emakumeek eta gizonen bizi duten errealitatean, zehazki ez da islatu bizitzaren ezein esparrutan, bazterkeria gure kulturaren eta gizartearen sakon baino sakonago errotua dagoelako. Aukera Berdintasuna egoera bat da non emakume eta gizonen aukera berdina dituzten intelektualki, fisikoki eta emozionalki errealizatzeko. Egoera horretan, haiek berek beren bizitzarako ezarritako helmugak lortzen ahal dituzte beren gaitasun potentzialak garatuz, bereizketarik egin gabe genero, klase, sexu, adin, erlijio edo etniarengatik (UICN: 1999). Egoera berri horrek, hots, berdina izatearen aukera horrek –bai eta aukera hori gizadian etengabe txertatua egoteak ere- berekin ekarriko lituzke ekitatea (benetan irrikatua) eta parekotasuna gure gizarteetara.

Zizur Nagusirako aukera berdintasunaren aldeko plana egitea garrantzi handiko gertakaria da eta, plan hori gauzatzeko, **EKINTZA POSITIBOAK** abian jarri behar dira eta, era berean, garatu mainstreaming esaten zaion printzipioa edo **GENERO ZEHARKAKOTASUNA**. Hona hemen zer den printzipio hori Emakumearen Institutuaren hitzetan: Prozesu politikoaren antolaketa (berrantolaketa), hobetze, garapen eta ebaluazioa da, halako moduan non neurri politikoak hartzeko prozesuan eta toki administrazio osoaren lanean parte hartzen dutenek genero edo emakume ikuspegia txertatuko duten politika guztietan, maila eta etapa guztietan. Lan marko horretan –kontzeptualizazio operatibo horren baitan-, ekintza positiboek eta zeharkakotasunak izan behar dute berdintasun planaren oinarriko zutabeak.

Beste alde batetik, ekintza positiboa edo esku-hartzeko estrategia hori bideragarri egiteko modua Estatu Batuetan jaio zen 60ko hamarkadan. Garai hartan gobernuak hainbat estrategia jarri zituzten martxan desberdintasunen –lan arlokoak batez ere aurka borrokatzeko. Hainbat taldek jasaten zituzten desberdintasun horiek, sexu, arraza, jatorri, erlijio eta beste arrazoi askorengatik. Europako Kontseiluaren emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko Batzordeak honela definitzen du kontzeptu hori: “aukera berdintasuna ezartzeko estrategiak; eta, horietarako, gizarte praktika edo sistemen ondorio diren bazterketak azaleratzeko eta zuzentzeko neurriak hartzea”.

Berdintasun Plan honek beste ardatz edo estrategia bat izan behar du oinarri, hots, **GIZARTE PARTAIDETZA**. Izan ere, lankidetzaren sare eta taldeen bultzada eta garapena beharrezkoak dira, jokabide egokiak berdintasunaren arloan eskuratzeko eta trukatzeko, baina baita aipatu printzipioa bultzatu eta indartzeko ere. Udalak funtsezko erreferentziak dira, emakumeen gizarte partaidetza bultzatzeko eta, alde horretatik, estrategiak, baliabideak eta zerbitzuak eman behar zaizkie, historiatik heldu zaigun desberdintasun horiek, genero ikuspegitik, murrizteko. Desberdintasun horietako bat, adibidez, oraindik ere ageri da emakumezkoen botere postuetan –bai eta erabakiak hartzeko haletan ere- duten ordekaritza urrian. Baina hori bera gertatzen da elkartegintzan, gizarte partaidetzarako egituretan, alegia. Eta erabakiak hartzeko postuak –edozein direlarik ere- funtsezkoak dira,

komunitate batean hartu beharreko neurrien eta politiken etorkizunaren gainean. Eta hori funtsezkoa da bere herritarren etorkizunerako, emakumeen eta gizonen etorkizunerako, jakina.

Alde horretatik, Plan honek berekin dakar arlo publikoa eta pribatua elkarren artean txertatu beharra. Hitz batez, Zizur Nagusiko emakumeek dituzten partaidetza mailak elkarren artean txertatu behar dira. Eta aipatu behar da oso aberatsa dela herri honek duen elkartegintza eta horrek ahalmen handia eduki dezake Plan honen printzipioak zabaltzeko, bai eta nahi duen elkarte oro Planean partaide egiteko ere. Ildo horri loturik, Plan honek hiru mailatan heldu dio partaidetzari eta, horrela, gizarte eragileak, teknikari profesionalak eta politikariak hartu ditu bere baitan. Plan hau egin aurreko jardueren artean –eta estrategia hori kontuan hartuta-, hainbat topaketa egin dira herriko elkartegintzan, arlo teknikoan eta politikoan buru dauden erakundeekin eta pertsonekin. Horren emaitza kanpaina bat izan da, herrian dagoen bereizkeriari buruzko lehen gogoeta eta sentsibilizazio kanpaina, alegia. Eta, are garrantzitsuagoa, aukera bat izan da, herritarrek Berdintasun Planaren prestaketa bere egin dezaten. Eta hori, jadanik, lehen urratsa izan da, helburuen ezarpenan eta proposatutako ekintza positiboetan. Prozesu horretan, garrantzi berezia izan dute –eta oraindik ere badute- herriko emakume elkarteek.



Esku-hartze arloak: helburuak, ekintzak eta parte hartuko duten erakundeak

Emakume eta berdintasun Arloa

Berdintasun planaren ezarpena eta mainstreaming edo zeharkakotasuna ziurtatzeko, funtsezkoa da Udalean Emakumea eta Berdintasuna Arloa sortzea, berriazko arloa alegia. Emakume Arloaren helburu nagusiak izan behar du Aukera Berdintasunaren aldeko I. Plana abian jarri eta ebaluatzea Zizur Nagusiko herritarrentzat. Arlo horrek aurrekontu bat izan beharko luke, bai eta berdintasuna lantzeko teknikari bat ere, proiektuaren bideragarritasuna bermatzeko. Arlo horrek berdintasunaren eta zeharkakotasunaren aldeko lan osoa kudeatuko du eta, era berean, behar diren ekintza positibo guztiak abiaraziko ditu, emakumeak esparru guztietan –gizonen maila berean- txerta daitezzen sustatzeko. Zeharkakotasuna eta udalaren gainontzeko arloekiko koordinazioa bermatzeko bada, arlo horrek Alkatetza, Lehendakaritza edo zerbitzu Orokorrak arloari atxikia egon beharko du. Argi eta garbi esateko, arlo horrek botere eragingarria izan behar du eta erabakimena ere bai.

Emakumea eta Berdintasun Arloak erreferentzia izan beharko luke udal egituraren baitan, herrian berdintasunaren aldeko estrategiak garatzeko, eta helburu izanen du Berdintasunaren Printzipioa bermatzea beste arloen, erakundeen eta herritarren artean. Horretarako, batetik, harreman bideak ezarri beharko ditu eta haien bidez idazkiak, ikus-entzunezkoak, informazioa eta prestakuntza hedatu, berdintasunaren printzipioaren beharra zabaltzeko, Udal barnean nahiz kanpoan. Beste alde batetik, behar diren bitartekoak eta baliabideak izan beharko ditu, Planaren garapenari lotutako langileek aukera berdintasuna zer den ikas dezaten eta printzipio horretan presta daitezzen.

Emakume taldeek berdintasunaren aldeko borroka gidatu dute hasieratik beretik –XIX. mendetik, alegia-. Zehazki, emakume taldeek boterea eta iritzi publikoa presionatu dituzte, beren aldarrikapenak aintzat hartzeko. Emakume taldeek berek gidatu dute XX. mendean gertatu den iraultza handia. Hori dela eta, “emakumeen mendea” esaten zaio. Etengabe esan da historia ez dela errepikatzen, baina gertaera iraunkorrak sortzen ditu. Hori dela eta, irakasuntza historiko horrek balio behar du, emakumeen arteko elkartegintza sustatzeko beharra funtsezko edo azaltzeko bai emakume guztien artean, bai talde ahulenen artean: emakume alargunak, familia ardurak dituzten ama bakarrak, emakume etorkinak, indarkeria sexistaren biktima diren emakumeak, emakume minusbaliatuak, anorexia eta bulimiaren biktimak, emakume gazte langabeak, e.a. Emakume horiek jasaten baitituzte defizitik larrienak, hau da, bazterketa gorrienetik hurbil dauden egoerak. Emakume horiek partaidetza foro bateratuen bidez elkartuko balira –administrazioak eta beste erakunde batzuek gidatutako beste jarduketak batzuekin batera- bizi-kalitatea hobetzeko aukera legoke, bai eta oraindik lortu gabe dauden lorpen sozialak erdiesteko parada ere. Halaber, garrantzitsua da elkartegintza sustatzea, elkarrekin partaidetza politikorako eskola egokiak baitira eta horrek emakumeen profesionalizatzea ahalbidetu eta sustatzen du. Eta, hain zuzen ere, hori Plan honen berriazko helburuetako bat da.

Beste alde batetik, Zizur Nagusiko Emakumearen Udal Kontseiluaren sorrera bultzatzea proposatuko da. Komunitatearen aldeko lanean ari diren emakume ugariren partaidetza susta-

tuko luke erakunde horrek bai politikan bai gizartean –esperientzia batzuek hori erakusten dute- eta, era berean, emakume horiek dituzten era askotako interes publikoak eta pribatuak. Zehazki, emakume ordezkari politikoak, emakume elkarteak, Guraso Elkarteak, emakume kopuru nabarmeneko gizarte eta kultur elkarteak, bai eta herrian partaidetzarako borondatea duten talde guztiak ere. Bada, horiek guztiek lekua izanen dute udalerriko erakunde aholku-emaile horretan. Erakundeak, bestalde, bi helburu nagusi izanen ditu, berariazko bi helburu, alegia: batetik, berdintasun plana garatu eta haren segimendua egitea eta, bestetik, emakume taldeen garapena bera bai politikan bai gizartean. Kontseiluak ordezkari zabalak eta anitza izan beharko du, gutxienez urtean bost aldiz bildu beharko du eta egoerak eskatzen duen aldi bakoitzean ere bai. Emakumearen zinegotzia izanen da buru bileretan. Bileretan hainbat gai jorratu beharko dira, besteak beste: Zizur Nagusiko herritarrei orokorrean eragiten dizkieten bazterkeria eta berdintasun gaiak. Udaleko botere eta erabakimen organoek –bai eta udal erakundeek ere- bideratu eta kontuan hartu beharko dituzte Kontseiluan hartutako erabakiak.

Halaber, Arlo horrek berak kontuan hartu beharko ditu azken urteotan berdintasunaren alde sortutako beste helburuetako bat eta indar-ideiak. Laneko eta familiako bizitza bateragarri egitea. Horra hor heldu behar zaion erronka: hau da, administrazio publikoek kontu horri heldu eta irteerak eta konponbideak proposatu beharko lituzkete, emakumeek laneko eta familiako bizitza bateragarri egiteko dituzten zailtasun eta oztopoei erantzunak emateko. Are gehiago, kontua da berdinen arteko bateragarritasuna. Kontua ez da soilik emakumeek laneko eta familiako bizitza bateragarri egitea eta soilik haiek egitea espazioak eta denborak bateratzeko ahalegina, administrazioak edo enpresek legezko bateragarritasuna bideratu ondoren. Gizonek bere erantzukizunak hartzearen aldeko apustua egin beharko lukete, bateragarritasunaren aldeko politika benazkoa eta zuzena izanen bada. Eta legeak alde batera utzita, hori pentsamendu kontua da. Eta horretan esku hartu beharko luke Udalak. Hau da, Udalak esku hartu beharko luke, estrategia hori aintzat hartzen duten ekimenak garatzen eta baloreak, ideiak eta ekimenak zabaltzen. Jakina, horren guztiaren osagarri, udalaren lan egiturak berak diseinatu beharko luke laneko bizitza bateragarri egiteko politika, betiere berdintasunean eta parekotasunean oinarritua.

1. Helburua: Emakume eta Berdintasun arloa sortzea –bere aurrekontua eta langile teknikoak eta guzti-, herrian Berdintasun Plana garatzea xede dituzten jarduketak guztiak bultzatu, koordinatu eta ebaluatzeko.

1.1 Ekintza: Zizur Nagusiko I. Aukera Berdintasun Plana argitara eman, aurkeztu eta banatzea, Udaleko politikarien eta teknikarien artean, bai eta herriko talde eta elkarten artean ere.

1.2 Ekintza: Berdintasun Printzipioa udalaren politika osoan txertatzea.

1.3 Ekintza: Planaren garapena bultzatzea, urteko lan programa eginik.

1.4 Ekintza: Urtean behin, jarduera txostena egitea, arloak denboraldi horretan abiarazitako helburuak, estrategiak eta ekintzak ebaluatzeko. Betiere ebaluazioa eginen da aurrez ezarritako adierazle batzuk oinarri hartuta.

2. Helburua: Partaidetza bideak ezartzea, Zizur Nagusiko emakumeek politikan eta gizartean parte har dezaten bultzatzeko, bai eta haien ahalduntzea sustatzeko ere.

2.1 Ekintza: Zizur Nagusiko Emakumearen Udal Kontseiluaren sorrera sustatzea.

2.2 Ekintza: Emakumearen partaidetza bultzatzeari loturiko ikastaro, tailer eta solasaldiak egitea: “Jendaurrean hitz egitea”, “auto-estima eta hazkuntza pertsonala” eta “ahalduntzea”, herriko adin guztietako emakumeentzat.

2.3 Ekintza: Sentsibilizazio kanpainak egitea, emakumeek udal politikan duten partaidetza urriaz ohartarazteko eta, era berean, emakumeek herriko elkarte/erankudeetako zuzendaritza organoetan berdintasunez parte har dezaten sustatzeko.

3. Helburua: Udalaren beste arloekiko eta, oro har, herritarrekiko harreman bideak garatzea, Berdintasun Printzipioa ahalik eta pertsona gehienengana iristeko eta programetan txertatzeko.

3.1 Ekintza: Zizur Nagusiko Udalaren web orriaren baitan, Emakumea eta Berdintasuna izeneko atal berezia sortzea, Udalak berak gai horretan egiten dituen jardueri buruzko argibide osoa zabaltzeko. Orri horren barnean, behar bezalako argibidea emanen da kontu hauei buruz: Planaren garapena, proposatutako jarduerak, beste erakunde batzuetako berdintasun zerbitzuak eta, azkenik, organismoak.

3.2 Ekintza: Udalaren gainerako arloekiko elkarlan bideak ezartzea: genero ikuspegia bere baitan hartzen duten programen plangintza, diseinua eta ebaluazioa.

3.3 Ekintza: Koordinaziorako bideak ezartzea Iruñerriko, Nafarroako eta Estatuko beste Emakume/Berdintasun arloekin, informazioa trukatzeko eta, hala bada, baliabideak errentagarri bihurtzeko, hau da, zerbitzuak alperrik ez bikoizteko.

4. Helburua: Emakumeen elkartegintza sustatzea.

4.1 Ekintza: Urteko dirulaguntza kontusaila ezartzea, beren programetan Berdintasun Planarekin zerikusia duten jarduketak egiten dituzten elkar-teentzat.

4.2 Ekintza: Emakume elkartearen sorrera bultzatzea, emakume talde ahulenen artean, bai eta gehien estalita dauden emakume taldeen artean ere: alargunak, familia kargak dituzten emakume bakarrak, gazte langabeak, lesbianak, minusbaliatuak, anorexikoak, emakume etorkinak, e.a.

4.3 Ekintza: Aukera Berdintasunaren aldeko eta elkartegintza mugimendua garatzeko prestakuntza ikastaroak eta tailerrak antolatzea, emakume taldeentzat.

4.4 Ekintza: Gida bat argitara ematea, emakumeen elkarte-mugimendua demokraziaren azken 25 urteotan izan duen laburpena egiteko eta, era berean, gaur egun elkarte era-tzeko egin behar dena azaltzeko: tramiteak eta dirulaguntzak.

4.4 Ekintza: Sentsibilizazio kanpainak egitea, emakumeek elkarte-mugimenduan parte hartzeak duen garrantziaz ohartarazteko eta, era berean, -berdintasuna lortzeko bidean-emakumeen parte hartzeak duen garrantziaz ohartarazteko.

4.5 Ekintza: Elkar-teetako emakumeen parte hartze eragingarria/autonomoa bultzatzea Zizur Nagusiko Emakumearen Udal Kontseiluan, Berdintasun Planaren garapen eta eba-luazio prozesuaren protagonista izan daitezen.

5. Helburua: Berdintasun Printzipioaren aplikazioari lotutako alderdiei buruzko sentsibilizazio eta prestakuntza alorreko jarduketak garatzea udal bizitzaren esparru guztietan.

5.1 Ekintza: Hizkuntza ez sexista toki administrazioan, publizitatean eta hezkuntzan erabiltzeari buruzko materialak egin eta hedatzea.

5.2 Ekintza: Berdintasun Planari eta Administrazioek Zizur Nagusiko herritarren zerbitzuan jartzen dituzten zerbitzuei buruzko informazio kanpainak antolatzea.

5.3 Ekintza: Publizitatean eta komunikabideetan, emakumearen irudiaren erabilera sexistari buruzko sentsibilizazio kanpainak egitea.

5.4 Ekintza: 4. Helburua. Zizur Nagusiko herritarrak sentsibilizatzea, etxeko lanak gizonen eta emakumeen artean zuzentasunez banatu beharraz, bai eta mendetasunean dauden pertsonen zainketa ere, familia eta lan bizitza bateragarri egiteko aukera izan dezagun.

5.5 Ekintza: Emakumeen kontrako jazarpena eta indarkeriari buruzko informazio eta sentsibilizazio kanpainak diseinatu eta egitea.

Parte hartuko duten erakundeak: Emakume Arloa, Emakumearen Udal Kontseilua, emakume elkarteak, emakumeek gidatzen dituzten Zizur Nagusiko taldeak, Gizarte Zerbitzu Arloa, Kultur Arloa, Nafarroako Emakumearen Institutua, Nafarroako gainerako Udaletako Emakume Arloak.

Lehendakaritza arloa edo Udala

Udal bizitza zuzendu eta kudeatzeko subjektua den aldetik, bere eskueran dauden bitarteko guztiak eskura jartzeko erantzukizuna dauka toki administrazioak, genero arrazoiak sortutako desberdintasunak eta bere eskumenen baitako esparruan dauden jarrera sexistak errotik kentzeko, bai eta emakumea udal eta auzo bizitzako partaidetzatik kanpo uzten duten dinamikak ezabatzeko ere. Udalak eredugarri izan behar du berdintasunaren aldeko lanean, hau da, erakunde eredugarria izan behar du berdintasunaren aldeko neurriak goitik behera betetzeko eta betearazteko. Alde horretatik, udalak beste gainerako erakundeak motibatu behar ditu –bai eta orokorrean herritarrak ere–, berdintasuneranzko gizarte aldaketa utopia hutsaz haratago joan dadin. Neurri eredugarri eta aitzindari horien artean daude, batetik, hizkuntza eta publizitate ez sexistaren erabilera arautzea eta, bestetik, ekitatea nahiz parekotasuna administrazioaren maila guztietan lortzea. Neurri hori hainbat udaletan ezartzen hasi da eta, dagoeneko, ondorio on nabarmenak izaten ari da. Arlo honek ere beste gauza bat bultzatu behar luke, hots, udal langileak Aukera Berdintasunean prestatzea. Lehentasunak eta faseak ezarri behar dira, erantzukizun politikoen, profesionalen eta laboralen arabera, baina erabat garrantzitsua da hala udalbatza osatzen duten zinegotziak nola kudeamena duten langile tekniko batzuk Aukera Berdintasunean prestatzea.

6. Helburua: Berdintasunaren aldeko legeriaren aplikazioa eta garapena Zizur Nagusiko Udalarri dagozkion eskumen esparruan bermatzea.

6.1 Ekintza: Berdintasun eta ez bazterkeriaren Printzipioa Zizur Nagusiko udalerrian garatuko duen berdintasunaren aldeko legeria aplikatzea.

6.2 Ekintza: Baliabideak baliatu eta neurriak hartzea, emakumea baztertzen duten egoerei arlo judizialek ekiteko.

6.3 Ekintza: Aukera Berdintasunaren Printzipioa Lan Hitzarmenari eta Udalaren kontratu guztiei aplikatzea.

6.4 Ekintza: Udal arloetan, gizon eta emakume langileen kopuruaren parekotasunera lortzera bideratutako neurriak aplikatzea.

6.5 Ekintza: Udaleko langileen artean baimen hauek sustatzea: aitasun baja, seme-alabak edo bere kargura dauden adinekoak zaintzeko eszedentziak eta lizentziak.

6.6 Ekintza: Datuak jasotzeko sistema instituzionala berrikustea, estatistika, datu-base, inkesta eta gisako guztiak sexuz banakatuak egon daitezen. Horrela, datu horien erabilerrak zeharkako ezein bazterkeriarik ekar ez dezan.

6.7 Ekintza: Amentzako eta aitentzako ordutegi malgutasuna sustatzea, 12 urtez beheko seme-alabak eta bere kargura dauden adinekoak zaintzeko.

7. Helburua: Udaleko langileak eta politikariak Aukera Berdintasunean informatu, sentsibilizatu eta prestatzeko jarduerak garatzea.

7.1 Ekintza: Aukera Berdintasunaren Plan hau Zizur Nagusiko Udaleko arlo eta departamentu guztietan argitara eman, aurkeztu eta helaraztea, aipatu dokumentuak dakartzan estrategia, helburu eta ekintzei buruzko argibide zehatza emateko.

7.2 Ekintza: Aukera Berdintasunari buruzko prestakuntza ikastaroak/tailerrak/solasaldiak egitea, Udaleko politikarientzat, funtzionarioentzat eta bertako zerbitzuetan lan egiten dutenentzat.

7.3 Ekintza: Zizur Nagusiko Udalean Martxoaren 8a Emakume Langilearen Nazioarteko Egun gisara ospatzea eta Azaroaren 25a, berriz, Indarkeria sexistaren kontrako Nazioarteko egun gisara.

7.4 Ekintza: Nafarroako Udal eta Kontzejuen Elkarteari, Nafarroako Gobernuari eta ANIMSA enpresari proposatzea ikastaroak antola ditzatela lan ordutegiak kontuan hartuz, langileek laneko eta familiako bizitza bateragarri egiteko aukera izan dezaten.

8. Helburua: Zizur Nagusiko Udalaren eskumenen baitan gertatzen diren jarduketak baztertzailere ezabatzerara bideratutako ekintzak egitea.

8.1 Ekintza: Zizur Nagusian. -bai erakustoki publikoetan bai partikularretan- ikusgai dagoen emakumeen duintasunaren aurkako publizitate baztertzailere oro ken dadin bermatzea.

8.2 Ekintza: Publizitate kanpainen kontratazio pleguetan, emakumearen irudi sexista edo baztertzailere erabiltzea espresuki debekatzen duen klausula sartzea.

8.2 Ekintza: Hizkuntzaren (euskaraz eta gaztelaniaz) erabilera ez sexistaren betearazpena bermatuko duen udal ordenantza erredaktatzea.

8.3 Ekintza: Udalak berak egindako administrazio agiri, inprimaki, espediente eta publizitate orotatik hizkuntza sexista ezabatzea.

Parte hartuko duten erakundeak: Zizur Nagusiko Udaleko arlo guztiak, Udaleko Enpresa Batzordea.

Gizarte Zerbitzuen eta Lankidetzaren Arloa

Gizarte Zerbitzuak Ongizate Estatuaren laugarren zutabea dira. Gizarte Zerbitzuetan sartzea herritarren eskubide funtsezkoa da, baina hala ere, ez dira eskubide unibertsal gisa hartuak. Hau da, eman daitezke ala ez eta baldintzei lotuak daude. Bada, Udalaren Gizarte Zerbitzuek –administrazio egituretan edo mankomunitateetan- kudeatutako baliabide horiek plataformarik hoberenetakoak dira, aukera berdintasunean hainbat jarduketa abiarazteko. Izan ere, zerbitzu horiek erabiltzen dituzten herritarrek zailtasun handiak dituzte gizarteratu eta lane-ratzeko eta, era berean, defizit larriak dituzte. Sexu arrazoiak sortzen ditu desabantaila sozial horietako asko. Izan ere, emakumeak dira pobreziarik eta kolokatasun sozialik handiena duen herritar sektorea. Hortik heldu da dinamika barnekoiak sustatzearen aldeko neurriak hartu beharra. Gizarte Zerbitzuen esku-hartze planteamenduak etengabe berrikusten dira kritikoki, bai eta argudioei dagokienez ere, eta hori horrela da gizarte honetan gertatu diren aldaketa gaitzak ikusita eta aldaketa horiek gizarte zerbitzuen xede diren taldeetan dituzten ondorioak direla kausa. Horrenbestez, prestakuntza praktikak ezarri behar dira genero ikuspegia kontuan hartuta. Betidanik, gizarte zerbitzuek emakumeei egin diete harrera eta gaur egun ere gauza bera gertatzen da. Emakumeak baitira, neurri handian, zerbitzuak, produktuak eta baliabideak jaso eta eskatzen dituztenak. Gauzak horrela, gure lan, azterketa, esku-hartze eta programen nahiz zerbitzuen diseinu estrategiak birpentsatu behar ditugu. Gaur egun, baliabide gehienak itxuraz neutroak dira, baina ez dira benetan horrealakoak. Ez da genero ikuspegia kontuan hartu baliabide horiek diseinatu eta pentsatu direnean, hala planteamendu orokorrean nola bere azkeneko garapen eta balorazioan.

Ugari dira gizarte egoera berriak, udalen gizarte zerbitzuek atenditzen dituzten arazo berriak. Eta horrek guztiak aztertu, baloratu eta esku-hartzeko ikuspegi berriaren beharra dakar. Hona hemen adibide bat: azken urteotan, emakume etorkin olde handia iritsi da Zizur Nagusira. Emakume eta ama langileak dira, etxeko zerbitzuan enpleguak. Familia elkartzeko eskaera eginik, beren seme-alabak ekartzen dituzte. Beraz, jende gehiago etortzen ari da, eta horrexek arazoak dakartzak berekin: etxebizitza, lana, osasun babesa, hezkuntza. Hori guztia modu orokorrean baloratu beharra dago, baina baita modu generikoan ere. Izan ere, egia da arazo sozialak direla, baina baita genero arazoa ere, eta genero ikuspegitik ekin beharko litzaioke.

Halaber, beste estrategia batek lehentasuna eduki beharko luke, emakumeen eta gizonen arteko Aukera Berdintasuna egokiro eraikitzeke, hots, Udal honek garapenaren aldeko lankidetzaren programetan eta proiektuetan genero ikuspegia sartzeak. Izan ere, behin eta berriz zapaltzen dituzte garapen bidean dauden herrialdeetan bizi diren emakumeen giza eskubideak: horrela, murriztua dute oinarrizko baliabide eta zerbitzuetan sartzea –eta horrek pobrezian eta gaixotasunean hondoratzen ditu-; ia ez dute botere egituretan parte hartzen, ezta erabakiak hartzeko egituretan ere; indarkeria latza jasaten dute –bereziki bortitza krisi eta gerra garaian- eta sexu indarkeria eta trafikoko larri-larria pairatzen dituzte. Ongi diseinatuta dauden proiektuei eman behar die lehentasuna administrazioak, baina bereziki, genero ikuspegia behar bezala kontuan hartzen dutenei. Era berean, proiektu horien emaitzak ikusarazi –nabarmendu- behar dira hainbat bide erabilita: solasaldiak, tailerrak eta diapositiba emaldiak eskola eta institutuetan, txikitandik gai horiei buruzko sentsibilizazioa sortzeko.

9. Helburua: Baztertuak dauden (prostitutat, preso ohiak, toxikomanoak), bazterketa arriskuan dauden (alargun pobreak, etorkinak, minusbaliatuak, ama bakarrak) edo tratu txarrak jasan dituzten emakumeei laguntza osoa eta beren eskubideen babesa ahalbidetuko duen Gizarte Zerbitzuen politika publikoa garatzea.

9.1 Ekintza: Gizarte Zerbitzuko langile guztiak Aukera Berdintasunean presta daitezen bultzatzea, -Zizur Nagusian- bazterketa arriskuan dauden emakumeen aldeko politiken garapena bermatzeko: laguntza soziala eta psikologikoa, juridikoa eta lan arlokoa, emakumeen sustapena.

9.2 Ekintza: Zizur Nagusian etxeko lanetan –bai beren etxean bai beste batenean- ari diren emakumeei buruzko azterlana egitea: kopurua, lan orduak, lan baldintzak, lan mota, e.a. Azterlan horrek bi helburu ditu: batetik, etxeko lana azalerraztea eta, bestetik, lan hori erregulatzeko irtenbideak ematea.

9.3 Ekintza: Baliabide mankomunatuaren sorrera bultzatzea, emakume prostituentzako osasun, prestakuntza eta tratu txarrei aurrea hartzeko programak abiarazteko.

9.4 Ekintza: Eskola-oporraldietan (Eguberriak, Aste Santua, uda), hainbat jardura eskainiko dituzten ludo-hurtzaindegiak eta/edo eskola irekiak sortzea, diru zailtasun bereziak dituzten emakumeentzat eta guraso bakarreko familientzat.

9.5 Ekintza: Oinarritzko errentak, prestakuntza urria edota lana aurkitzeko zailtasunak dituzten emakumeentzako ikastaroak antolatzea lan prestakuntzari buruz. Ikastaro horiek hurtzaindegi zerbitzua eman beharko lukete, hala eskatuz gero, eta antolatu behar dira udalerriko lan orientabidea eta laneratze zerbitzuarekin, CEIN erakundearekin eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuarekin elkarlanean.

9.6 Ekintza: Partekatu gabeko familia-erantzukizunak dituzten emakumeentzako –eta desabantaila sozialean daudenak- ateraldi edo oporraldi soziokulturalak antolatzea

9.7 Ekintza: Karga familiar guztiak bere gain dituzten emakumeei laguntzeko sarea edo topalekua bultzatzea.

9.8 Ekintza: Gizarte bazterketa arriskuan eta/edo tratu txarrak jasateko arriskuan dauden emakumeei lehentasuna ematea bai enplegu sozialean, bai laneratze programan, bai etxebizitza soziala esleitzean.

9.9 Ekintza: Emakume ahulen taldeen artean elkartegintza bultzatzea, beren eskaerak bideratzeko.

9.10 Ekintza: “Emakume bitartekariak” zerbitzua sustatzea -Zizur Nagusian bizi diren kulturen ordezkariak-, emakume etorkinen eta beren familien gizarteratzea sustatzeko.

9.11 Ekintza: Mendetasunean dauden adineko emakumeentzako arreta osoko programak egitea. Bestalde, berez baliabideak daitezkeen adineko emakumeen partaidetza sustatu behar da, erretiratuaren klubek eta beste erakunde batzuek antolatzen dituzten jardueretan.

9.12 Ekintza: Adineko pertsonekin bizi diren emakumeei eta gizonei baliabideak ematea, errentari begira bereizi gabe.

9.13 Ekintza: Emakume minusbaliatuaren aldeko politikak ezartzea, bizitzaren esparru guztietan berez parte har dezaten bermatzeko eta bazterkeria bikoitza gerta ez dadin ziurtatzeko.

10. Helburua: Garapen bidean dauden herrialdeentzako lankidetzaren programetan emakumearen aldeko ikuspegia sustatzea, pertsona helburu duen garapen iraunkorra lortzeko.

10.1 Ekintza: Lankidetzaren proiektuak aurkezteko kontusailean aipatuko da berariaz baloratuko direla gizonen eta emakumeen arteko aukera berdintasuna sustatzera diseinatutako proiektuak.

10.2 Ekintza: Emakumeen giza eskubideen urraketa salatzeko, Espainian eta nazioartean abiatzen diren ekintzetan laguntzea.

10.3 Ekintza: Adituek emandako solasaldiak eta eztabaida-saioak antolatzea, arazo politiko larriak, hondamendi naturalak, gerrak, goseteak eta abar dituzten herrialdeentzako emakumeen egoera latza –injustizia soziala– ezagutzera emateko.

10.4 Ekintza: Proiektu horien emaitza ikusarazi behar dira, herriko eskola eta institutuetan, diapositiba emanaldi, bideo eta halakoen bidez, herrialde horietan emakumeek bizi duten egoera latzari buruzko sentsibilizazioa eta ezagutza sustatzeko.

Parte hartuko duten erakundeak: Gizarte Zerbitzuen Arloa, Emakumearen Arloa, Emakumearen Udal Kontseilua, Zizur Nagusiko erretiratuen elkarteak, Osasun Etxea.

Kultura eta Euskara arloa

Nahiz-eta, mendez mende, emakumeek kultura moldeetan parte hartu duten –hori bai, era minoritarioan–, XX. mendean sartu dira indarrez kultur merkatuan, kulturaren arlo publikoan. Baina Ilustraziotik heldu zaigun kultur ikuspegiak baldintzatutako partaidetza eta agerpena dira, ikuspuntu androzentriko nabarmenari lotua, non emakumea kultur jardueraren eta munduaren objektu izan den, kulturaren ardatz baino gehiago. Horregatik, emakumeak kulturari egindako ekarpenari arte txikia esan izan zaio. Hala ere, emakumeari buruzko historia azterlanek azalera atera dituzte bere garaiko kultur eta arte iraultzaile benetakoak izan ziren emakume ugari. Alabaina, oraindik ere berdintasuna ahul xamar dabil, kulturaren, kultur egintzaren eta arte agerpenen hormak zeharkatzeko. Hona adibide bat: nahiz-eta, iritzi azterlan askoren arabera, irakurle gehienak emakumeak izan, komunikabideek gizon idazleak tratatzen dituzte hobekien, eta gizonek argitara ematen dute libururik gehien. Ez dago emakume idazle gutxiago, ez, baina kontua da literatur munduak ikusezin bihurtzen dituela –eta gutxietsi– emakume idazleak eta honela sailkatzen du haien literatura: “emakumezkoen literatura”. Bada, gutxiespen hori bera gertatzen da kultur jardueraren edo arlo gisa hartuak dauden gainerako esparruetan.

Beste alde batetik, Arlo honetan beste alderdi hau ere kontuan hartu beharra dago: historian zehar emakumearen kultur sormena ikusezin bihurtu izan da. Kontuan hartu beharreko jarduketaren ildoetako bat da emakumeek era guztietako jai, ohitura eta usadioetan, eguneroko bizitzan –hitzez batez, herriko historian berean– izan duten pisu handia. Hortik dator historia eta kultura demokratizatu beharra, eta hori lortzen da emakumeen lanak agerian jarritz, beren izenak azaleratuz eta beren memoria historikoa agertuz. Horretarako, garrantzitsua da arlo honek konpromiso politikoa eta teknikoa hartzea, genero ikuspegi hori kultur jardueren kudeaketan, eta kultur ikastaro, erakusketa eta proiektuen diseinuan txertatzeko, bai eta

antolatzen diren ekitaldi orotan ere. Eta genero ikuspegia aintzat hartzeak esan nahi du emakumea kontuan hartu behar dela ez soilik antolatzen diren ekitaldi orotan –hau da, ekitaldi horietan emakumeak protagonista izan behar du gizonaren baldintza berdinetan-, baizik eta kontuan ere hartu behar direla emakumeak dituen zailtasun eta eragozpenak, kultur produktuak erabiltzeko. Herri askok emakumeen kaletegia egin dute, emakumeen memoria historikoa berreskuratzeko, eta esan beharra dago hori ekimen aitzindaria izan dela. Hau da, emakumeak kaleetan ere agertu behar du –kale izenetan, alegia-, ikusgai bihurtu, izendatu.

11. Helburua: Kultur Arloko langileak, monitoreak eta jarduera horien esleipendunak diren enpresetako langileak Aukera Berdintasunean presta daitezten sustatzea.

11.1 Ekintza: Zizur Nagusian, kultur jarduerak eginen dituzten monitore, enpresa, talde edo elkarte esleipendunek Aukera Berdintasunean duten prestakuntza baloratzea.

11.2 Ekintza: Zizur Nagusian beren kultur jarduera egiten duten antzerki, musika, eskulan... taldeak sentsibilizatzea, berdintasuna sustatzen duten jarduerak egin ditza- ten.

11.3 Ekintza: Kultur Arloak sustatutako jardueren bidez, sexuen berdintasunari buruzko eztabaida eragitea, gai horrek dituen ikuspegiak eta alderdiak kontuan har- tuta.

11.4 Ekintza: Kulturako langile guztien prestakuntza gaiotan bultzatzea: kultur kude- aketa ez sexista, genero aurrekontuak, hizkuntza ez sexista euskaraz eta gaztelaniaz, e.a.

11.5 Ekintza: Hizkuntza eta ikur sexisten erabilera galaraztera bideratutako irizpide- ak elkarte, talde, kultur talde eta abarrentzako dirulaguntzen deialdietan sartzea. Era berean, behar bezalako irizpideak sartzea, emakumea baztertua izan ez dadin delako elkarte horien erabaki organoetatik.

12. Helburua: Gizartearen ikuspegi ez sexista txertatu eta emakumeek kulturari, historiari eta arteari egindako ekarpena ikusgai jarriko duen kultur politika garatzea.

12.1 Ekintza: Herriko emakume elkarteekiko elkarlana sustatzea, Martxoaren 8a eta Azaroaren 25a ospatzeko kultur ekitaldiak antolatzeari begira.

12.2 Ekintza: Emakumeek –iraganean eta gaur egun- egindako kultura/artearen eza- gutza sustatuko duten liburu erakusketak eta aurkezpenak, antzerki lanak, jaialdiak, mintzaldiak eta abar Kultur Etxean eta Udal Liburutegian egitea.

12.3 Ekintza: Emakume eta gizon kopuru berbera ziurtatzea, arte eta literatur sariak emateko eratzen diren epaimahaietan.

12.4 Ekintza: Udal Liburutegia gai hauei buruzko materialez hornitzea (liburuak, material idatziak eta ikus-entzunezkoak): hezkidetza, feminismoa, emakumeen histo- ria, emakumezkoen enplegua, emakume nabarmenen gaineko azterlanak, biografiak, e.a.. Era berean, hori guztia toki nabarian jartzea, haien kontsulta errazagoa izan dadin.

12.5 Ekintza: Udalak dituen aukeren arabera, topalekuak eratzea, emakumeen par- taidetza sustatzeko eta, ahal den neurrian, haurrak eta mendetasunean dauden per- tsonak zaindu eta laguntzeko zerbitzuak eskaintzea.

12.6 Ekintza: Modu esplizituan emakumeen partaidetza sustatzea Zizur Nagusiko kultur agerpenetan (festen kartelak egitea, pintura lehiaketak atari zabalean, Donibane eguneko suak, festak, bertsoaritza, gastronomia, inauteriak, e.a.), Zizur Nagusiko kultur ondarearen sortzaile eta ardatz izan daitezen.

12.7 Ekintza: Emakume artisten agerpena herriko musika eta antzerki programazioetan handitzea.

12.8 Ekintza: Euskal emakumeen historiaren ezagutza euskaraz sustatzea, euskarazko hizkuntza ez sexistaren ezagutza bultzatzea eta informazio hori herriko D eredu-ko eskola publikoetako irakasle eta ikasleen artean zabaltzea, bai eta herriko euskaltegien artean ere.

12.9 Ekintza: Haurtzaindegi zerbitzua ematea, Udalak antolatutako kultur ekitaldietan.

13. Helburua: Zizur Nagusiko kale eta espazio berriei emakumeen izenak paratzeko ekimena sustatzea.

13.1 Ekintza: Herritarren artean, kaleen izenari buruzko eztabaida eragitea, bai eta haietan emakume izenik ez izateari buruzko eztabaida ere.

13.2 Ekintza: Zizur Nagusiko historiari eta historia orokorrari ekarpenak egin dizkieten emakume izenak proposatzea, kale, espazio eta eraikin adierazgarri berriak izendatzeko.

Parte hartuko duten erakundeak: Kultura eta Euskara Arloa, Emakume Arloa, Emakumearen Udal Kontseilua, Zizur Nagusiko euskaltegia, Zizur Nagusiko kultur talde eta elkarteak.

Kirol Arloa

Goi lehiaketako kirola nagusiki gizonetzkoentzako esparrua izan da duela hamarkada gutxira arte. XIX. mendearren bukaeratik –eta gizonen esku zegoen zientzia medikoak erabat baldintzaturik-, kirola emakumeentzako kaltegarria zela esaten zen, emakumea bere eginkizun funtsezkorako hezten baitzuten, hots, mugarik gabeko amatasunerako. Hezkuntza tradizionalaren arabera, kirola norberaren gozamenerako jarduera zen eta hori ez zen inola ere egokia emakumearentzat. Gainera, pentsatzen zen kirola egiteak emakumea gizondu egiten zuela eta, era berean, desbideratzen zuela bere rol eta eginkizun sozialetatik.

Hezkuntza eredu modernoak berekin ekarri zuen –eskola mistoak, bereziki- neska-mutilak hezkuntzatik bertatik kirolean aritzeko motibazioa, baina aipatu motibazio hori planteatu zen bi sexuek hezkuntzan eta kulturaren –beren rol sozialen eta sexu bakoitzean sortutako espektatiben arabera- arrastaka zekartzaten desberdintasunak asumitu edo kontuan hartu gabe.

Egia da kirol arloa dela emakumeek modurik nabarienean oztopoak hautsi dituzten arlo-etako bat, baina aurrerapen hori ikusita, harritzeko modukoa da zeinen apala den emakumearen agerpena kirol ekitaldietan, kirol selekzio ofizialetan edota eliteko lehiaketan. Izan ere, azken joko olinpikoetan, emakumeen partaidetza partehartzaile guztien % 30 pasatxo izan zen. Eskola erakundeek bultzatzen duten kirolean ere portzentaje hori bera dute neska partehartzaileek. Alde horretatik, gizarte garaikideak oraindik ez du berdintasuna kirolean lortu –ez berdintasun numerikoa, baizik eta emakumeek egindako kirola aintzat hartzea eta balio absolutuetan baloratzea gizonen egindako kirolean bezala-. Gutxi dira emakume entrenatzaileak, gutxi ere klubetako zuzendariak, arbitroak edo jokozainak, bereziki kirolaren konturik garrantzitsuenak erabakitzen diren maila eta estamentuetan.

Kirol batzuk erabat emakumeen esku daude, esaterako, gimnasia erritmikoa eta aerobika, eta beste batzuk, aldiz, gizonen esku: futbola, txirrindularitza, eskubaloia, xakea, borroka-arteak. Horra –kirolean- sexuen artean gertatzen den bereizkeria handiaren adibidea. Izan ere, kirol hau ala bestea aukeratzekoan, mutilek eta neskek oso argi dute. Bereizkeria horren ondorioz, gizarteak modu desberdinean baloratzen ditu kirol batzuk eta besteak. Ez da harritzekoa emakumeek egiten dituzten kirol batzuek erakundeen laguntzarik ez izatea, are gutxiago babeslerik, oso proiektio mediatiko apala sortzen baitute, kirol zehatz bat edo beste ez bada. Gaur egun, oraindik neskek mutilek baino kirol gutxiago egiten dute eta, gainera, neska nerabeek mutilek baino lehenago uzten diote kirola egiteari.

Beraz, desberdintasuna agerian dago oraindik lehiaketako kirolean, bai eta lehiarik gabeko kirolean eta aisian ere. Alde horretatik, astialdiak, eguneroko aisiak eta jolaserako denborek ederki islatzen dituzte astialdian eta aisian sartzean dauden desberdintasunak. Izan ere, bere bizitzaren mendetasunei lotua dago, neurri handian, emakumeak bere aisia espazioak eta denborak gozatzeko denbora. Eta mendetasun horiek agerikoagoak dira emakumeengan gizonengan baino.

Garrantzitsua da, orduan, arlo honek sarbide berdintasunaren printzipio hori aintzat hartzen segitzea –arlo honek pisu handia du Udalaren barnean-, eta horretarako kontuan hartu behar ditu beharrak eta denbora diferentziatuak. Aldi berean, sexuari begira baztertzatzeak ez diren jarduketak eta jarduerak sustatu behar ditu bere esku-hartze, diseinu eta estrategia bakoitzean. Horretarako, honako helburu hauek zehatu dira:

14. Helburua: Kirolean, berdintasunari buruzko prestakuntza, sentsibilizazioa eta gogoeta sustatzea.

14.1 Ekintza: Kirol Arloko langileak, monitoreak, entrenatzaileak eta enpresa esleipendunetako langileak gai hauetan prestatzea: aukera berdintasuna kirolean sartzeko, aurrekontua eta generoa, hizkuntza ez sexista.

14.2 Ekintza: Familia eta eskola egiturak sentsibilizatzea, sexuak eraginik izan ez dezan haurren kirola aukeratzeko, ezta kirol praktikan ere, bai eta kirola nesken artean sustatzeko ere.

14.3 Ekintza: Zizur Nagusiko kirol praktikari buruzko azterlana egitea, genero ikus-pegitik eta, besteak beste, aztertu beharko dira zer dela eta neskek kirola egiteari uzten dioten nerabezarora iristean.

15. Helburua: Adin guztietako emakume eta gizonen artean berdintasunean oinarritutako kirola sustatzea.

15.1 Ekintza: Kirol sustapenerako eta animaziorako kanpainak egitea, adin guztietako neskekentzat.

15.2 Ekintza: Emakume taldeen prestakuntza bultzatzea, bai eta beren kirol jarduera eta emakumeentzako lehiaketan antolaketa ere.

15.3 Ekintza: Herriko eta herrialdeko komunikabideetan neska kirolari modeloen publizitatea egitea, bai eta emakume taldeen eraketa, beren lehiaketa eta beren lorpenen publizitatea ere.

15.4 Ekintza: Kirol Arloak egiten duen publizitatean irudi/mezu idatziak erabiltzea, emakumeen eta gizonen partaidetza bultzatzeko –betiere, berdintasunean oinarrituriko partaidetza- eta, aldi berean, kirolean gertatzen den sexu bereizkeria ahalik eta gehien murrizten laguntzeko.

15.5 Ekintza: Emakume kirolariak nabarmentzeko topaketak, solasaldiak, tertuliak eta proiektzioak sustatzea.

15.6 Ekintza: Emakume gazteen partaidetza sustatzea oso emakume gutxi ari diren kirolean (eskupilota, txirrindularitza, futbola, eta abar).

15.7 Ekintza: Emakumeak kiroleko zuzendaritzan eta erabaki hartzeetan sartzea.

15.8 Ekintza: Emakume kirolariak animatzea, jokalariei izatetik entrenatzaile izatera pasa daitezen.

Parte hartuko duten erakundeak: Kirol Arloa, Kirol Patronatua, Emakume Arloa, Eskolak eta institutuak, Guraso Elkarteak, Kirol Federazioa, kirol taldeak, herriko eta herrialdeko komunikabideak, Nafarroako Emakumearen Institutua.

Gazteria Arloa

Gaztaroa ikaskuntza aroa da, norberaren nortasuna osatzekoa, heldutasunean nagusi izanen ditugun jarrerak entseatzeko aroa. Baina gaur egun, bizitzaren aro hau – gizartean eta ekonomian dauden baldintzak eta sozio-demografian gertatu diren aldaketa gaitzak ikusita-, independentzia eta autogestioa eragozten dituzten erronkaz eta zailtasunez beterik dago, eta bai independentzia bai autogestioa funtsezkoak dira, garapen pertsonala osatzeko. Izan ere, lanik ezak eta etxebizitzan sartzeko zailtasunek erabat baldintzatzen dute independentzia falta hori, oso berandu arte. Horregatik guztiagatik, eta beren autonomia pertsonala bultzatu nahi badugu, gazteei erraztasunak eman behar zaizkie, lan egonkorrean sartzeko aukera izan dezaten eta, aldi berean, behar bezalako etxebizitza – ekonomikoki eskuragarria- eskuratzeko parada izan dezaten. Egia da udal arlo hau ez dela baliabide horiek kudeatzeko zuzeneko arduraduna, baina gazteen artean baliabideak eta zerbitzuak sustatu beharko litzuke,

funtsezko bi eskubide horietarako sarbidea osatzeko edo sustatzeko. Eta egin behar du, agiri honetan aipatu ditugun berdintasunaren aldeko estrategiak kontuan hartuta.

Neska-mutil gazteek ez dute genero bazterkeriaren pertzepzioa behatzen, ezta sentitzen ere, harik eta bizitza helduan sartu arte, hau da, lehenbiziko lana lortu, bikotean bizi edo seme-alabak iristen diren arte. Horregatik, neska eta mutil gazteen artean, genero desberdintasunei buruzko gogoeta eta eztabaida eragitera bideratutako moduluak, mintegiak eta jarduerak antolatu behar ditu eskola eta institutueta prestakuntza arautuak. Prestakuntza osagarri horrek gogoeta eragin behar du estereotipo tradizional maskulinoen eta femeninoen iraunkortasunaz, bai eta horrek bi sexuentzako dituen ondorio kaltegarriez ere. Halaber, garrantzitsua da sexu hezkidetzari dimentsio horretatik beretik heltzea. Sexu bat edo bestea izateak erabat baldintzatzen du sexualitatea. Horregatik, ikasgelan gogoeta egin beharra dago sexualitateaz eta bere gozamen egokiaz.

Beste helburu bat da emakume gazteen partaidetza bultzatzea herriko bizitzan –gizartea, kultura, ekonomia-. Egia esan, helburu hori beste arlo batean definitua dago, baina berrikusi beharra dago. Izan ere, datuak ikusita, hogeita hamar urtez beheko emakumeen kualifikazioa ez dator bat organismo sozial eta politikoetan duten partaidetza eta erabakimen mailarekin. Horren ondorioz, gainbalio soziala galtzen dute. Izan ere, emakumeek –potenzialki ongi prestatuak daude- ez dute protagonismo aktiborik bizitza aktiboan, ezta, oro har, estrategia eta dinamika sozialetan ere. Horregatik, arlo honetako helburuetako bat izanen da emakumeen partaidetza bizitza sozialean eta ekonomikoan bultzatzea.

16. Helburua: Zizur Nagusiko gazteriarekin lan egiten duten guztiak Aukera Berdintasunean, genero ikuspegian eta hizkuntza ez sexistan prestatu eta sentsibilizatu daitezkeen bermatzea.

16.1 Ekintza: Gizarte eta kultur animaziorako monitoreak eta gazte elkarteetako kideak Aukera Berdintasunean eta hezkidetzan prestatzea.

16.2 Ekintza: Zizur Nagusiko Gazteria Arloak antolatutako jardueren programazioan, diseinuan eta ebaluazioan genero ikuspegia sartzea, bai eta Aukera Berdintasunaren printzipioa ere.

17. Helburua: Zizur Nagusiko emakume gazteen presentzia eta partaidetza parekidea bermatzea herriko gazte talde, erakunde eta elkarten ordezkariak eta erabakiak hartzeko organoetan.

17.1 Ekintza: Elkarte eta taldeentzako sentsibilizazio kanpainak egitea, bilera ordutegi-tan eta antolaketa ohituretan behar diren aldaketa guztiak egin ditzaten, emakumeen eta gizonen partaidetza parekidea sustatzeko.

17.2 Ekintza: Elkarten ardura postuetan emakumeen presentzia sustatzea.

17.3 Ekintza: Elkarteetako emakume gazteen topaketa sustatzea, Emakumearen Udal Kontseiluan parte hartzearen bidez.

17.4 Ekintza: Emakume gazteentzako prestakuntza tailerrak antolatzea: autoestimua, defentsa pertsonala, indarkeria sexistaren aurkako sentsibilizazioa, aukera berdintasunean prestatzea, hirigintza eta boterea, sexualitatea, ahalduntzea, gidaritza teknikak, jendaurrean mintzatzea, publizitatea eta hizkuntza ez sexista.

18. Helburua: Zizur Nagusiko gazteen independentzia eta autogestioa sustatuko dituen etxebizitza politika garatzea.

18.1 Ekintza: Gazteei etxebizitza txikien eta etxabeen alokairua sustatzea, prezio merketan.

18.2 Ekintza: Aukera berdintasuna landu nahi duten gazte elkarteei etxabeen edo lokalen alokairua sustatzea, herriarentzako berrikuntza edo lanen truke.

Parte hartuko duten erakundeak: Gazteria Arloa, Gizarte Zerbitzuen Arloa, Gaztetxea, Emakume Arloa, herriko gazte taldeak, Osasun Etxea, Hirigintza Arloa, Gizarte Zerbitzuak.

Hezkidetzaz, Prestakuntza Arloa

Sexu biologikoak ez du emakume edo gizon izatea baldintzatzen. Izan ere, funtsean ikasketak kontua da, hezkuntza kontua. Hau da, halako kultur aztura eta estrategia batzuk ikasten edo eskuratzen ditugu, genero batean partaidea izatean oinarriturik. Alde horretatik, gizon-emakumeok heziak izaten gara, emakume edo gizon izateko, betiere hainbat sozializazio esparrutatik egindako sozializazio prozesu baten bidez eta, jakina, jatorri kulturen arabera, esparru horiek desberdinak dira. Guri dagokigunez, familiak, eskolak eta komunikabideek osatzen dute oso modu nabarian gure rol kulturala, eta guregandik –hots, gizon eta emakumeongandik– espero dena ere bai.

Hezkuntza eredu mistoak (neska-mutilak elkarrekin) gaintzen lagundu zuen lehenagoko eskola hura: neska alde batetik eta mutilak bestetik. Eskola zaharrak, beraz, mutilak eta neskak bereizita hezten zituen eta, horrela, birsortu egiten ziren bi sexuei esleitutako rolak eta eginkizunak. Gizarte hartan “lanaren sexu banaketa” ezarria zegoen. Horrekin bat, emakumeek etxeko lanean eta zainketan aritu behar zuten, baina arlo publikoan erabat ikusezinak izan behar zuten. Bere aldetik, gizonak lehiakorrak eta eragingarriak izan behar zuten arlo publikoan eta jasotzaileak etxekoan. Eskola mistoak hezkuntza eredu bakarrean batu zituen neskak eta mutilak. Hori egia da. Baina ez zuen genero azterketarik egin, hau da, ez zuen genero ikuspegia sartu irakasleen prestakuntzan, curriculum eduki androzentrikoetan, testuetan eta eskolaren egiturazko organigraman. Horrela egin izan balitz, aukera genukeen eredu horretan –sortu zenez geroztik– dagoen sexismoa antzemateko. Oraindik ere, nahiz eta indarrean dauden hezkuntza ereduak aurrerapenak gertatu, eskola mistoak mutila prestatzen segitzen du arlo publikorako eta, aldi berean, balore sozial, jarrera eta jokabide patriarkalistak sustatzen eta matxistak ere bai. Betidanik feminitateari lotutako baloreak ahazten dira: zainketa, errespetua, etika eta sentsibilitatea. Beraz, gogoeta funtsezkoa da sozializazio esparru honetan. Eta hori funtsezkoa da, eskoletan eta institutuetan oraindik dauden ageriko arrastoak gaintzeko. Hezkidetzaz mintzatzen ari gara, berdintasun baloreetan eta balore ez sexistetan hezteaz, jarrera errespetagarriak sustatzeaz eta ardurakidetzaz. Horretarako, irakasleen prestakuntza funtsezkoa da eta, hori lortuko bada, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak esku hartu eta behar diren bitartekoak jarri behar ditu bide luze eta neketsu horretan. Halaber, ikasleek –ikasteko– erabiltzen dituzten testuak aztertu behar

dira, salatu egin behar da testu horiei darian sexismoa, bai eta ikasgaien eta testuen edukiak berrikusi ere. Izan ere, oraindik ere ezkututzen dituzte emakumeek historiari, ekonomiari, zientziei eta beste arlo batzuei egindako ekarpenak.

Aspaldian, indarkeria sexistaren aurkako emakume elkarteek mahai gainean jarri zuten filosofia pedagogiko berriaren garrantzia, emakumeenganako jarrera errespetagarriak eta, aldi berean, sexismoaren aurkako tolerantzia zero jarrerak sustatzeko. Proposamen horiek islatu dira Emakumeen kontrako indarkeriatik babesteko neurriak arautzen dituen lehen Lege Integralean (1/2004), Espainiako Gobernuak onetsia. Legeak bildutako neurri batzuek aipatzen dute hezkidetzaren irakaskuntzako maila guztietan jarri beharra dagoela, emakumeen kontrako indarkeriazko jarreraren –arloan pribatua nahiz publikoa– prebentzioa prebenitzeko. Dena den, hezkuntza prozesua ez da soilik eskolara mugatzen eta familiak funtsezko eginkizuna betetzen du genero baloreak eta estereotipoak transmititzeko. Hori ikusita, guztiz funtsezkoa da gurasoak –amak eta aitak– prozesu horretan sentsibilizatzea eta prestatzea, hezkidetzaren aurrerapena bermatuko bada. Helduen hezkuntzari dagokionez, hezkuntza arloko eskaintzaren plangintza sakondu beharra dago eta, horretarako, kontuan hartu behar dira emakumeen interesak, beren esperientziak eta ezagutzak, bai eta prestakuntza eskaintza guztietan aukera berdintasunez sartzeari eragozten dieten oztopoak ere.

19. Helburua: Edozein arrazoi dela eta, ikasketak utzi behar izan dituzten emakume helduen prestakuntza bultzatzea, beren mailen eta interesen arabera.

19.1 Ekintza: Helduen prestakuntza arloko eskaintza emakume kopuru handiagoa egon ohi den lekuetan zabaltzea eta, era berean, haietan emakumeen partaidetza sustatzea.

19.2 Ekintza: Gaitasun apaleneko eta gizarte nahiz lan zailtasunak dituzten emakumeen artean Helduentzako Hezkuntza Iraunkorra sustatzea.

20. Helburua: Eskola komunitate osoa, sexismoaren eta androzentrismoaren kontra sentsibilizatu eta prestatzea.

20.1 Ekintza: Ikasle, irakasle eta Guraso Elkarteentzako sentsibilizazio eta prestakuntza kanpainak garatzea hezkidetzaren gakoei buruz eta hezkidetzak identitate pertsonalaren eraikuntzan duen garrantziari buruz.

20.2 Ekintza: Eskola komunitatearentzako sentsibilizazio kanpainak garatzea, neska ikasleentzako artean eskola kirola -lehen eskola urteetatik– sustatzeak duen garrantziaz. Halaber, emakumezkoen taldeen sorrera bultzatu behar da, eskolako lehiaketetan parte hartzeko.

20.3 Ekintza: Lehen eta Bigarren Hezkuntzan, hau guztia sustatuko duten hezkidetzaren tailerrek egitea: desberdintasunak errespetatzeari buruzko ezagutza, gatazka era baketsuan konpontzea, sexismoaren sustraiak, generoa analisirako kategoria gisa, berdintasunaren aldarrikapenaren bilakaera, feminismoaren lorpenak, e.a.

20.4 Ekintza: Bigarren Hezkuntzako institutuetako eskola-komunitatearentzat tailer/solasaldiak egitea, rolerak eta genero espektatibek baldintzatuta ez dagoen orientabide profesionala egiteko beharraz.

20.5 Ekintza: Eguberriak baino lehentxeago familientzako eta merkatal zentroentzako kanpainak egitea, jostailu ez sexistak eta ez belikoak erosi eta erabiltzearen aldeko sentsibilizazioa sustatzeko.

20.6 Ekintza: Familia eredu berriei buruzko materialak egin eta zabaltzea.

20.7 Ekintza: Hezkuntzako eragile guztien artean, hezkidetzari buruzko materialak egin eta zabaltzea.

21. Helburua: Zizur Nagusian, familiako eta laneko bizitza bateragarri egitea.

21.1 Ekintza: Udalaren haur Eskolaren baitan, ikastoki kopurua handitzea, hartan sartzeko eskaria egin duten Otik 3ra urte bitarteko haur guztiak hartzeko, bai euskaraz bai gaztelaniaz.

21.2 Ekintza: Zizur Nagusiko Udalak eta gizarte eragileek gizonen eta emakumeen arteko familia ardurakidetzatza bultzatzeko konpromisoa hartzea, emakumeak lan betean sar daitezen sustatzeko.

Parte hartuko duten erakundeak: Emakume Arloa, Nafarroako Emakumearen Institutua, Emakumearen Udal Kontseilua, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua, Zizur Nagusiko ikastetxeak eta institutuak, Helduen Irakaskuntza Iraunkorra, Guraso Elkarreak, Udalaren Haur Eskola, Zizur Nagusiko merkatarien elkartea.

Osasun Osoa eta Ingurumen Arloa

Badira hainbat adierazle, herri baten bizi-kalitatea neurtzeko. Baina, funtsean, osasun osoaren mailari begiratzen zaio, hau da, kontuan hartzen da herritarren osasun fisiko eta psikikoa, bai eta ingurumen osasuna ere. Horri erantsi behar zaio baliabideetan eta zerbitzu publikoetan sartzeko maila, bai eta bere ingurumenaren kalitatea ere. Emakumeen bizi-itxaropena handiagoa da gizonena baino. Egia da hori, baina horrek ez du esan nahi hobe bizi direnik. Gehiago zaintzen dira, kontzientzia handiagoa dute beren osasunaz, baina beraien bizi-kalitatea apalxeagoa da gizonena baino. Gutxi gorabehera, herritarren % 20k depresioak ditu. Zalantzarik gabe, emakume gehiagok izaten dituzte depresioak eta horrek zerikusia du emakumeek ardura handiagoa dutelako familia egituren zainketan, arretan eta mantenimenduan, bai eta haien intendentzian ere. Hortik heldu da emakumeek beren bizitza publiko eta pribatuarekiko duten gogobetetasun maila gizonena baino apalagoa izatea. Botere publikoek ekimenak sustatu behar dituzte arlo horretan. Ekimen horiek zerikusia dute hiri-espazioak hobetzearekin –ez soilik arkitektonikoak-, baliabide publikoetan sartzearekin. Halaber, emakumea eta bere osasuna erreferentzia gisa dituzten programak diseinatzearekin. Prozesu horretan, oso garrantzitsua da Zizur Nagusian Emakumeari Laguntzeko Zentroa jartzea, Zendeako emakumeentzako arreta leku batean biltzeko. Azken buruan, horren xedea da, herriko helduen eta gazteen ugalketa osasuna eta sexu hezkuntza hobetzea.

Beste alde batetik, ingurunearen eta ingurumenaren mantentzea eta zainketa bermatuko duen filosofia erantsi beharko lieke Udalak ingurumenean egiten dituen askotariko eskuhartze eta politikei. Toki administrazioak era aktiboan heldu behar dio energia mota ororen aurrezpenari eta, era berean, energiak eta natur baliabideak zentzuz erabili behar ditu,

birzikla daitezkeen material guztien birziklapena bazter utzi gabe. Udalak, gainera, hainbat ekintza positibo sustatu behar ditu, gizonen eta emakumeek garraio publikoa gehiago erabil dezaten, garraibide gisa bizikleta erabil dezaten eta adin guztietako emakume eta gizonen kirola egin dezaten.

22. Helburua: Hirigintza Arloa inplikatzeko emakumeen bizitzaren interesak eta beharrak kontuan hartzen dituen hirigintza-plangintzaren eredu.

22.1 Ekintza: Zizur Nagusian bizi diren emakumeen partaidetza kontuan hartzea, hirigintza-espazio berriak diseinatzeko proposamenak egiterakoan.

22.2 Ekintza: Osasuna eta ingurumena kaltetzen dituzten uraren eta energiaren erabilera arduragabeak –eta teknologia eta produktu jakin batzuk erabiltzeak– dakartzan arriskuez herritarrak sensibilizatzea.

22.3 Ekintza: Hiri autobusen zerbitzua egokitzea, herritarrek gehien eskatutako ordutegi, maiztasun eta ibilbideetara.

22.4 Ekintza: Bizikletentzako errete bat (bidegorria) egitea Zizur Nagusian, zerbitzurik erabilienak lotzeko. Bizikletentzako aparkalekuak egitea, egunerako eta gauerako.

22.5 Ekintza: Pixatoki publikoak jartzea herritarrek aisiarako gehien erabiltzen dituzten lekuetan. Udalak kontratatutako langileek zaindu behar dituzte zerbitzu horiek. Bestalde, bi sexuentzako zerbitzuetan umetxoentzako alda-mahaiak eduki behar dituzte.

22.6 Ekintza: Seguratasunik eza sortzen duten faktoreak ezabatzea herriko espazio publikoetan:

- argiteria publikoa hobetzea.
- oztopo arkitektonikoak eta zoladura irristagarriak kentzea.
- bide seinaleztapena hobetzea, bai eta gehien erabiltzen diren zerbitzuak eta instalazioak ere.

23. Helburua: Nerabeen artean izaera kritikoa sustatzea, osasunari lotutako kontuetan beren erantzukizuna gain har dezaten.

23.1 Ekintza: Haurdunaldiei eta sexu-transmisiozko gaixotasunei aurrea hartzeko kanpainak egitea, antikonzeptiboaren erabilera ardurakidetzaz azpimarratuz.

23.2 Ekintza: Sexu hezkuntzari eta drogen prebentzioari buruzko tailerrak egitea, betiere gazteentzat eta institutuetan.

23.3 Ekintza: Informazio eta sensibilizazio kanpainak sustatzea, anorexiak eta bulimiak neska nerabeen artean duten eraginari buruz.

23.4 Ekintza: Emakumeari Laguntzeko Zentroa eta bere zerbitzuak institutueta ikasleei eta gazte taldeei ezagutzera ematea.

23.5 Ekintza: Mendira joateko eta atari zabalean jarduerak egiteko irteerak eta txangoak antolatzea, gazte taldeentzat.

24. Helburua: Bizi-kalitatea eta gizarte nahiz osasun ongizatea ziurtatzea Zizur Nagusiko emakume heldu guztientzat.

24.1 Ekintza: Emakumeari Laguntzeko Zentroa (COFES) Zizur Nagusian sortzea, Zendeako emakumei harrera egiteko, bai beren ugalketa beharretan bai sexu hezkuntzan. Azken horri dagokionez, emakumei eta gizonei eginen lieke arreta.

24.2 Ekintza: Bizi ohitura osasungarriak sustatzera bideratutako dibulgazio kanpainak egitea hainbat adinetako emakumeentzat.

24.3 Ekintza: Osasun heziketa lantzeko ikastaroak eskaintzen segitzea. Laguntza erretze-ari uzteko, antsietatea kontrolatzea, autoestimua, hazkuntza pertsonala, diabetea, hipertentsioa, heldutasunak dakarren plazera, sexua helduaroan.

24.4 Ekintza: Eguneko Zentroa sor dadin ahalbidetzea, mendetasunean dauden Zizur Nagusiko pertsonentzako.

24.5 Ekintza: Familia kideen artean, mendetasunean dauden pertsonentzako laguntza zuzentasunez denen artean banatzearen aldeko sentsibilizazio kanpainak egitea.

Parte hartuko duten erakundeak: Osasun Etxea, Emakumeari Laguntzeko Zentroa, Emakumearen Arloa, Hirigintza Arloa, Hezkuntza Arloa eta Iruñerriko Mankomunitatea.

Emakumeen aurkako indarkeriaren Arloa

Gizarte osoak salatu behar du indarkeria sexista, bai eta haren kontrako lanean inplikatu ere. Ez da noizbehinkako arazoa, ez dio soilik eragiten gizartearen zati bati. Munta handiko afera da, baldintza sozial, arraza eta adin guztietako emakume guztiei eragiten dien egiturazko arazo larria. Emakumeen aurkako indarkeria –edo genero indarkeria- ez da mugatzen soilik etxeko tratu txarretara. Izan ere, emakumeek –emakume izate hutsagatik- jasaten duten bidegabekeria katearen gertakaririk nabarmenena da. Genero indarkeria askoz ere haratago doa. Indarkeria psikologikoa da, sexu jazarpena, emakumeen langabezia, soldatetan dagoen bazterkeria, emakumeen genitalen ebaketa, pobreziaren feminizazioa, estetikaren tirania, emakumeen trafikoa eta prostituzioa, emakume langileen esplotazioa esparru guztietan eta, azkenik, oro har emakumeen eta beren ekarpenaren ezkutaketa.

Baina emakumearen aurkako indarkeria bereziki ankerra da etxe barnean. Emakumea beti egon ohi da mendetasunean familia tradizionalaren barruan. Emakumearen kontrako indarkeriari aurre egiteko erakunde feministen estatu sarearen arabera, 2004an 109 emakume gertatu ziren hilik beren bikotekideen edo bikotekide ohien eskutik. Espainiako Estatuko datuak dira. 2005ean, orain artean, dagoeneko 67 emakume hil dituzte. Tratu txarrak jasaten dituzten emakume gehienak bikotekideengandik edo senarrengandik hartzen dituzte tratu txarrak etxe esparruan. Azken bost urteotan nabarmen handitu da seme-alabek gurasoen aurka egindako indarkeria eta horrek berresten du zeinen garrantzitsua den belaunaldi honetako hezkuntzan inbertitzea. Indarkeria hori ezabatuko bada, biktimak babestu beharko dira, salaketa egin, arazoa argitara atera, gizonen eta emakumeen sentsibilizazioa, ardurakidetzeta eta, azkenik, familia eredu berria eratu beharko da, benetako berdintasunean eta bikotekideen errespetuan oinarritua.

Beste emakume kopuru handi batek sexu jazarpena jasaten du, bai eta indarkeria psikologikoa ere, lan esparruan. Katalunian egindako azterlanaren arabera, emakume langileen % 46k sexu jazarpena jasan dute lan arloan, gehienetan kargu handiagoko pertsonaren eskutik. Proporzioan, indarkeria hori salatzen da gutxien, emakume langileen egoera ahul-ahula dela-

ko. Kontzientziazte eta sensibilizazio lan handia egin behar da –sindikatuetoako arduradunei, gizarte eragileei, enpresaburuei eta, oro har, emakume langileei zuzendua-, lanerako eskubi-dea erabiltzen duten emakumeen kontrako indarkeria mota hori salatzeke.

Genero indarkeria erazuziko bada, neurri osoak behar dira. Neurri nagusia emakumeen segurtasuna ziurtatzea da -biktima diren aldetik-, baina beste neurri aunitzen, hein handian, prebentzioan eragin behar dute, bai eta berdintasunean eta justizia sozialean oinarritutako hezkuntzan ere. Neurri horietako asko abiarazterakoan, toki administrazioak batera aritu behar du xede horretarako sortzen diren organo, erakunde eta taldeekin.

25. Helburua: Herritarrei, oro har, eta Udalari berari genero indarkeriaren egoera eta bere agerpen moldeak jakinaraztea.

25.1 Ekintza: Azaroaren 25a, Indarkeria Sexistari aurre egiteko Nazioarteko Egun gisa ospatzea, herritar guztiak arazo larri horretaz sensibilizatzeko.

25.2 Ekintza: Genero indarkeriak, Espainiako Estatuan, sorrarazi dituen heriotza guztiak salatzea, kale-bilkuren, mozioen eta jendaurreko beste ekitaldi batzuen bidez.

25.3 Ekintza: Eskola-curriculumaren barnean, berariazko kanpainak edo modulu teori-koak eta praktikoak egitea, emakumearen aurkako indarkeriaren zergatiaz gogoeta eragiteko, betiere ikaslearen hezkuntza mailara egokituak.

25.4 Ekintza: Genero indarkeriaren kontrako sensibilizazio kanpainak egitea –16tik 24ra urte bitarteko eta 65 urtetik gorako herritarrentzat-, Institutuekin, Gazteria Zentroekin eta erretiratuen Klubekin elkarlanean.

25.5 Ekintza: Emakumeen kontrako indarkeria agertzen den moduei, konponbideei eta hari aurre egiteko Udalean dauden baliabideen gaineko liburuxka argitara ematea gaztelaniaz, euskaraz, bai eta ingelesez eta arabieraz ere.

25.6 Ekintza: Sindikatuekin eta erakunde publikoekin elkarlanean, sensibilizazio kanpainak egitea, lan munduan gertatzen diren eraso sexualen salaketak argira ateratzeko.

25.7 Ekintza: Indarkeriaren aurkako gizon elkarten eraketa bultzatzea.

26. Helburua: Tratu txarren biktima diren emakumeentzako laguntza osoa, koordinatua eta alde askotakoa bermatzea.

26.1 Ekintza: Udala akusazio partikular gisa agertzea, Zizur Nagusian genero indarkeriak eragindako heriotzarik gertatuz gero.

26.2 Ekintza: Tratu txarren biktima diren emakumeentzako laguntza ematen duten profesionalak berariaz prestatzea erasotzaileek emakumea kontrolatzeko, menderatzeko eta desbaloratzeko erabiltzen dituzten estrategiez, bai eta horrek guztiak eraso jasan duten emakumeen portaeran dituen ondorioez ere, arazoaren ikuspegi herrena galaratzeko eta, aldi berean, biktimei behar bezalako babesa eta laguntza bermatzeko eta herrian gertaturiko tratu txarren eta sexu erasoen salaketak jasotzeko.

26.3 Ekintza: Tratu txarrak gertatzen direnerako jokabide protokoloa egitea, zer egina duten aldeek adostua eta sinatua: Udaltzaingoa, Gizarte Zerbitzuak, Laguntza Juridikoa eta Psikologikorako Zerbitzua, Osasun Etxea, Hezkuntza Zentroak. Tratu txarrak jaso dituzten biktimentzako laguntzan, garrantzitsua da hala biktimaren beraren nola erasotzailearen gaineko datuak ematea –adina, lan egoera, prestakuntza-, hori guztia jakitea

garrantzitsua baita, lan plangintza eragingarriagoak egiteko. Halaber, garrantzitsua da beste polizia batzuetatik iristen diren salaketak bideratzea (Foru-zaingoa eta Guardia Zibila), Zizur Nagusiko kasuak badira.

26.4 Ekintza: Laguntza psikologikorako zerbitzua eskaintzea –doan-, banantze traumati-koak eta tratu txarrak badira, bai gizonentzat bai emakumeentzat. Banantze/tratu txar/familia arazoak konpontzeko psikologo aditu batek eman beharko du laguntza hori, betiere Emakumearen Arloarekin eta Gizarte Zerbitzuekin elkarlanean.

26.5 Ekintza: Laguntza juridikorako zerbitzua eskaintzea –doan-, familia, tratu txar, oinordekotza... kontuetan aholkularitza emateko. Banantze/tratu txar/ familia arazoak konpontzeko abokatu aditu batek eman beharko du laguntza hori, betiere Emakumearen Arloarekin eta Gizarte Zerbitzuekin elkarlanean. Zerbitzu horren lanetako bat herritarrei informazioa ematea izanen da, genero bazterkeriari bukaera ematera bideratutako arauen aplikazioari buruz -zuzenbide penalean eta laboralean-, eta emakumeen eta gizonen bizi-kalitatea ukitzen dutenak.

26.6 Ekintza: Larrialdietarako etxebizitzak erreserbatzea Ardoiko hirigintza plan berrian, herrian bertan tratu txarren eta/edo sexu erasoen biktima izan diren emakumeak behin-behineko hartzeko, emakumeek berek eskatzen badute. Era horretako laguntza eskatzen badute udalerrian ez dagoen harrera etxebizitza batera joateko, eskabide hori bideratu behar da beste erakunde batzuetako ostatu baliabideetara.

26.7 Ekintza: Tratu txarren biktima diren emakumeei lehentasuna emanen zaie, baliabi-deetan sartzean: lana eta udal etxebizitzak.

Parte hartuko duten erakundeak: Emakumearen Arloa, Gizarte Zerbitzuen Arloa, Segurtasun eta Herritarren Babesa Arloa, Emakumearen Udal Kontseilua, Osasun Etxea, ikastetxeak, sindikatuak, Hirigintza Arloa, Gazteria Zentroak, Gaztetxea eta erretiratuen klubak, Kultur Arloa, Zizur Nagusian ordezkatuak dauden alderdi politikoak, herriko elkarteak eta taldeak.

Lan Arloa

Lan ordaindurako eskubidea izan da emakumeen lorpen sozialetako bat azken mendean. Horretarako, borroka handia egin behar izan dute, harik eta gizarteak beren lanerako indarra aintzat hartu eta lan ordainduan sartu diren arte. Horrela, aurre-kapitalismo patriarkalistak ugalketa-esparrua egokitu zien hasieran. Ez, ordea, ekoizpen-esparrua. Ondorioz, emakumeen eginkizuna ekoizleak (gizonak) eta seme-alabak zaintzera mugatzen zen, -lan hori ez zegoen aintzat hartua eta ikusezin bihurtua zegoen- eta gizonari, aldiz, familia buru eginkizuna ematen zion sistema horrek. Horrela, babes sistema desberdinak ezarri ziren, hots, gizona zen ardatza bai ekonomian bai ekoizpenean. Zenbait unetan, emakumeek eskema horiek hautsi zituzten. Esaterako, gerra garaian. Gizonak frontean baitzeuden eta horrek ate batzuk irekiarazi zituen, emakumea ekoizpen egituretan sar zedin eta hori ezezaguna zen ordura arte haiantzat.

Baina XX. mendean hautsi dituzte emakumeek errekor guztiak, lan partaidetzari dagokionez. Dena dela, oraindik ere, ez dago inola ere bere osoan aintzat hartua, baloratua eta parekatua emakumeak egindako lana eta, hein batean, oraindik ikusezina da. XX. mendearen erditik gaur egunera arte doan denboraldi luze horretan, emakumeek eta beren familiek hartu dute bere gain –emakumeek kudeatutako familiek, alegia- Ongizate Estatuaren puska nabarmena, hori bai, era ezkutuan eta ez izendatuan. Hau da, emakumeek bere gain hartu dituzte estatu sozialek egun oraindik ere herritarren eskubidetzat jo ez dituzten lan batzuk, mendetasunean dauden pertsonak zaintzearekin zerikusia duten lanak, alegia. Hala ere, emakumea lan ordainduan sartu izanak koste gehigarriak ekarri dizkio. Horrela, Europako Batasun osoan, emakumezkoen langabezia tasak gizonezkoenak baino handiagoak dira nabarmen. Espainiako Estatuari dagokionez, emakumeek bana beste % 28 gutxiago kobratzen dute gizonek baino. Gainera, lan sektore jakin batzuk feminizatzen ari dira eta, hain zuzen ere, lan sektore horiek sortzen dituzte lan kolokatasunik eta segurtasun ezik handiena. Eta ez dugu ahaztu behar oso lan baldintza kaxkarrak dituzten emakume horiek direla –baldintza baztertzailak, zinez- era solidarioan etxeko lanaz eta mendetasunean dauden pertsonen zainketaz arduratzen direnak. Beraz, lan jardunaldi bikoitza jasaten dute, bai eta horrek osasunari ekartzen dion ondorioa ere.

Zizur Nagusiko emakumeek okupazio portzentaje altuagoak dituzte (% 61,5) emakumeek Nafarroan duten okupazioaren batez bestekoa baino (% 39,5). Prestakuntzak eta ikasketak mailak zerikusi zuzena dute emakumezkoen lan tasarekin. Hau da, zenbat eta ikasketa maila goragoa, hainbat eta jarduera portzentaje handiagoa. Emakumezkoen langabezia tasa gizonezkoenaren halako bi da adin guztietan, baina are esanguratsuagoa da emakume gazteen artean dagoen langabezia. Gainera, Zizur Nagusiko emakumeen okupazioaren kalitatea handiagoa da batez bestekoa baino. Baldintzak horiek ikusita, administrazioek ekintza positiboak abiarazi behar dituzte eta konpromisoa hartu, emakumeen artean kalitateko enplegu bete ahalbidetzeko.

Emakume etorkinek bi bazterketa jasaten dituzte, atzerriko emakumea izateagatik. Hori dela eta, arrisku handiagoa dute, lan prekarioetan sartzeko, bai eta lan bazterkeria jasateko ere. Nafarroan, emakume etorkinen % 28 besterik ez dago afiliatua Gizarte Segurantzari. Administrazio publikoek, premia osoz, prestakuntza eta informazio ahaleginak egin beharko

lituzkete emakume etorkinentzat, horien lan profilak eta profil pertsonalak egokitzeke, gaintzeko langileen baldintzetan laneratu daitezten lortzeko.

27. Helburua: Emakumeek ekonomiari egin dioten ekarpena ikustarazi eta ezagutzera ematea.

27.1 Ekintza: Emakume langileak protagonista izanen dituzten eta beraiek gizarte osoaren ekonomiari eta ongizateari egindako ekarpenen berri emanen dituzten solasaldiak eta erakusketak egitea.

27.2 Ekintza: Emakumeen partaidetza bultzatzea lanaren eta prestakuntzaren inguruko eztabaida foroetan eta bestelako jarduera partehartzaileetan.

28. Helburua: Zizur Nagusiko emakumeen laneratzea bultzatu eta sustatzea besteen konturako lan merkatuan.

28.1 Ekintza: Lan teknikariak enpresen eta emakume langabeen artean edo lana hobetu nahi dutenen artean egiten duen bitartekaritza bultzatzea.

28.2 Ekintza: Emakumeei aholkularitza osoa eta laguntza ematea, lanerako prestakuntzarako eta lana bilatzeko.

28.3 Ekintza: Udalak prestakuntza planak sustatu beharko lituzke, emakumeen lanbide gaikuntza bultzatzeko. Batez ere, emakumeak gutxi ari diren esparruak eta lan aztarnategi berrietarako lanak bultzatu beharko lirатеke.

28.4 Ekintza: Etxe-zerbitzurako lan burtsa sortu eta zabaltzea, Zizur Nagusiko herritarrentzat.

28.5 Ekintza: Kanguru Programa ezartzeko lan tailerra sustatzea. Hamabi urtera arteko haurrei arreta egin eta zaintzeko emakume/gizon langabeak prestatzean datza. Ondotik, enpresa/kooperatiba eratu eta zerbitzu hori emanen lukete eskaintza publikoak estaltzen ez dituen orduetan.

28.6 Ekintza: Emakumeen laneratzea sustatzera bideratuak dauden Europako proiektuak bultzatu eta garatzea.

29. Helburua: Zizur Nagusiko emakumeen laneratzea bultzatu eta sustatzea beren konturako lan merkatuan.

29.1 Ekintza: Beren konturako lana sustatu eta ikustarazteko kanpainak egitea emakumeen artean.

29.2 Ekintza: Emakumeei aholkularitza eta laguntza teknikoa eskaintzea autoenplegu proiektuetan eta, aldi berean, sortutako enpresei beren lehen urratsetan laguntzea.

29.3 Ekintza: Autoenpleguari, enpresa-kudeaketari, kooperatibismoari eta abarri buruzko prestakuntza ekintzak ematea.

30. Helburua: Emakume langileek Zizur Nagusian duten egoera hobetzea

30.1 Ekintza: Lanbide birziklapen tankerako jarduerak egitea, etorkizunari begira perspektibarik ez duten lanbideetan ari diren eta, bereziki, etxe-zerbitzuan ari diren emakumeentzako, haien egoera sustatu eta hobetzeko.

30.2 Ekintza: Etxeko Zerbitzuko Lan Poltsako langileak kontratatzen dituzten familiak/pertsonak aholkatzea, langile horien kontratuak erregularizatzeko, bai eta Gizarte Segurantzian alta emateko ere.


30.3 Ekintza: Emakumeen partaidetza bultzatzea beren enpresen bizitza sindikalean, lan hitzarmenetan beren eskubideen defentsa aktiboa egin dezaten.

31. Helburua: Enpresaburuak sentsibilizatzea, emakumeen kontratazioa eta laneko eta familiako eginkizunen bateragarritasuna sustatzeko.

31.1 Ekintza: Enpresetako arduradunekin elkarrizketak egitea, kontratatuak izan daitezkeen emakumeen lan baldintzak ez zailtzeko ordutegi, txanda, soldata eta halakoetan, eta, aldi berean, langileen laneko eta familiako bizitza bateragarri egitearen aldeko neurriak har ditzaten.

31.1 Ekintza: Enpresei galdetegia egitea, emakume langileak kontratatzerakoan aurkitzen dituzten zailtasunak jakiteko eta konponbideak bilatzen laguntzeko.

Parte hartuko duten erakundeak: Emakumearen Arloa, Emakumearen Udal Kontseilua, Herriko Enplegu eta garapen eragilea, sindikatuak, Zizur Nagusiko emakume autonomoak, Zizur Nagusiko Merkatarien Elkartea, Zizur Nagusian dauden enpresak, Nafarroako Emakumearen Institutua, CEIN, AMEDNA, Europako Gizarte Funtsa, Nafarroako Enplegu Zerbitzua, Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioa.



Kontzeptuen definizioa

Ekintza positiboa: Kontzeptu hau Estatu Batuetan jaio zen 60ko hamarkadan. Garai hartan gobernuek hainbat estrategia jarri zituzten martxan desberdintasunen –lan arlokoak batez ere– aurka borrokatzeko, eta estrategia horien baitan jaio zen esamolde hau. Desberdintasun horiek hainbat taldek jasaten zuten, sexu, arraza, jatorri, erlijio eta beste arrazoi askorengatik. Europako Kontseiluaren emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko Batzordeak honela definitzen du kontzeptu hori: “aukera berdintasuna ezartzeko estrategiak; eta, horietarako, gizarte praktika edo sistemen ondorio diren bazterketak egiaztatzeko eta zuzentzeko neurriak hartzea”.

Emakumeen Aukera Berdintasunerako Agentea: Irudi hau Europako Batasunak bulztatu zuen laurogeiko hamarkadan. Lan arlorako irudia da, eta Europako Batasuna osatzen duten herrialdeen artean finkatu da hamarkada honetan. Irudi hau Lanbideen Estatuko Sailkapenean (LES) jaso da Espainian. Bere lanbide-eskuduntzak hauek dira, funtsean: “emakumeen Aukera Berdintasunari dagozkion ekintza positiboko programen diseinu, kudeaketa eta ebaluazioa, arlo hauetan: hezkuntza, heziketa, profesionaltasuna, lanbidea eta oro har herritarren partaidetzako modu guztiak”.

Demokrazia paritaria: Gizarte eta politika antolaketa modu bat, non gizartea osatzen duten kolektiboen kopuru eta eskubide berdintasuna dagoen. Kolektibo horiek erabaki eta gobernu organoetan parte hartu behar dute. Emakumeak gizarte eta politikako parte hartetik baztertuak izan dira historian, ez baitituzte eskubide osoko herritartzat hartu. Gaur egun, demokrazia gehienetan emakumeek presentzia urria dute Estatuko botere eta organoetan. Horregatik, zenbait emakume talderentzat parekatze hori funtsezko oinarria da emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko.

Bereizkeria: Lanean Aukera eta tratu Berdintasuna ezabatzea nahiz aldatzea ondorio duen bereizketa, bazterketa nahiz lehenetasun oro (Lanaren Nazioarteko Erakundearen 1958ko bereizkeriari –lanbidean– buruzko hitzarmeneko 1. artikuluko 1. paragrafoa a atala).

Zuzeneko bazterketa, bereizkeria: Arautegiak, legeak edo politikek zenbait langile esplizituki baztertu edo gutxien dituztenean, iritzi politikoa, egoera zibila edo sexua bezalako ezaugarriengatik. (Lanaren Nazioarteko Erakundea: 2003).

Zeharkako bazterketa, bereizkeria: Hori gertatzen da xedapen eta praktika itxuraz inpartzialek kolektibo jakin bateko kideak kaltetzen dituztenean, lanpostu zehatz bat betetzeko behar diren baldintzak betetzen dituzten edo ez kontuan hartu gabe (LANE: 2003). (Lanaren Nazioarteko Erakundea: 2003).

Sexuaren arabera lanaren banaketa: Eginkizunak sexuaren arabera banatzea, eta horren arabera balio unibertsala ematea honako uste honi: “emakumeek gizonen baino erantzukizun handiagoa dute seme-alabak zaintzen eta hezten eta etxeko lanetan; gizonak, aldiz, etxez kanpoko lanetan aritzen dira, hau da, arlo ekonomiko eta politikoan, erlijiozko eta kulturean...” (Amoró: 2002).

Lanaldi bikoitza: Kontzeptu honekin adierazi nahi da emakumeek bai etxean bai publikoki egiten duten lana. Emakumeek beren gain hartzen duten zama bikoitz hori aparteko denbora inbertsioa da, beren aukerak mugatzen dituena. Emakumeek bere “lan ikusezi-naren” bidez egiten duten ekarpena Barne Produktu Gordinaren % 40 izatera iritsi daiteke. Emakumeek etxeko lanaren bidez hazkunde ekonomikoari egiten dioten ekarpen horri “itzaleko diru-laguntza” deitu diote ekonomista feministek.

Ekitatea: Ekitateak bilatzen du pertsonak Aukera Berdintasuna eta oinarrizko gaitasunaren garapena lortzea. Horrek esan nahi du ezabatu egin behar direla aukera ekonomiko eta politikoak oztopatzen dituzten hesiak, baita hezkuntzarako eta oinarrizko zerbitzueterako sarrera oztopatzen dituztenak ere; horrela, pertsonak (adin eta egoera guztietako gizon eta emakumeak) aukera horiek izan eta balia ditzaten.

Etxeko eremua: Esamolde honekin adierazi ohi da ugalketaren eremua, “jarduerarik ezaren” eremua; han gertatzen dira hazkuntza, maitasunak eta laguntza behar dutenen zainketa; hau da, behar pertsonalak betetzen diren toki hori. Ohituraz eremu horretan kokatu dira emakumeak.

Eremu pribatua: Norberaren espazioa eta denbora dira, ez zaie beste pertsonari ematen, baizik eta norberarentzat direla, etxeko eremu eta eremu publikotik urruti; bertan pertsonak beren burua lantzen dute, gero eremu publikoan proiektatzeko. Gizonezkoek gozatzen dute batez ere pribatutasuna, eta emakumeen kasuan etxeko eremuarekin nahasi ohi da.

Eremu publikoa: Eremu produktiboa adierazi ohi da esamolde honen bidez, jardueraren arloa, lan, gizarte, politika eta ekonomia bizitza gertatzen den tokia; gizartean parte hartzeko eta ezagutuak izateko tokia da. Ohituraz eremu horretan kokatu dira gizonezkoak.

Feminismoa: Gizarte doktrina, teoria eta mugimendua, eta bultzatzen du emakumeak gizaki osotzat hartu behar direla, subjektu banakotzat, eskubideak eta betebeharrak dituztenak. Sexuagatiko (eme jaio izanagatik) bereizkeriaren aurka dago, baita generoagatiko (emakumeek dituzten atribuzio femeninoengatik) bereizkeriaren aurka ere. Feminismoak hainbat joera eta ideologia ditu, baina ez da –arruntki egiten den bezala– Matxismoarekin parez pare jarri behar, zeren matxismoak adierazten baitu arrak emearekiko nagusitasuna izatea, eta kontzeptu hori ez da Feminismoaren parez parekoa. Izatekotan, “Emismoa” (ez da hiztegiatan existitzen) erabili beharko litzateke Matxismoaren aurkako gisa, eta “Gizonismoa”, “Hominismoa” edo “Maskulinismoa” baldin eta adierazi nahi badugu doktrina, teoria edo mugimendu hori zeinak gizonentzat eskatzen duen Feminismoak emakumeentzat eskatzen dituen balore berberak (Simón: 1999).

Pobreziaren feminizazioa: Bi esanahi izan ohi ditu: 1) zentzu estuan adierazten du pobrezia handieneko taldeetan beren burua edo beren familia mantentzen duten emakumeen proportzioa; 2) edo behartsu izanen liratekeenak beren burua mantendu behar balute.

Kasu horretan azpimarratu nahi da pobrezia emakume gehienentzako mehatxua dela (Valenzuela: 1998).

Generoa: Generoak talde biosoziokulturalak dira. Horiek eratzeko, historikoki oinarritzat hartu dira gizakiak gorputzaren arabera sailkatzen dituzten sexu ezaugarriak. Sailkatu ondoren, bakoitzari hainbat eginkizun, jarduera, gizarte harreman, jokabide eta arau desberdin ematen zaizkie. Zehaztasun eta ezaugarri ekonomiko, sozial, juridiko, politiko eta ekonomikoak dira, hau da, zehaztasun eta ezaugarri kulturalak; horiek eduki zehatzez beteko dute gizon eta emakume izatea zer den garai, gizarte eta kultura bakoitzean.

Eskubide berdintasuna: Berdintasun formala legearen aurrean. Gizonak eta emakumeak berdintzea legezko neurrien bidez. European, erregimen demokratikoetan, lehen mundu gerraren ondoren berrezarri zen legearekiko berdintasunaren printzipioa, eta orduan onartu zitzaizen emakumei hezkuntzarako, lan ordaindua izateko eta botoa emateko eskubideak. Espainian, lege berdintasunaren printzipioa ez zen iraunkorki lortu 1978ko konstituzioa izan arte.

Emakume eta gizonen arteko Aukera Berdintasuna: Egoera bat non emakume eta gizonen aukera berdinak dituzten intelektualki, fisikoki eta emozionalki errealizatzeko. Egoera horretan berek ezarritako helmugak lortzen ahal dituzte beren gaitasun potentzialak garatuz, bereizketarik egin gabe genero, klase, sexu, adin, erlijio edo etniarengatik (UICN: 1999).

Genero mainstreaming-a: Prozesu politikoen antolaketa (berrantolaketa), hobetze, garapen eta ebaluazioa da, halako moduan non neurri politikoak hartzeko prozesuan parte hartzen dutenek genero edo emakume ikuspegia txertatuko duten politika guztietan, maila eta etapa guztietan. (Emakumearen Institutua: 1999).

Patriarkatua: Menderatze bortitzeko sistema, gizonetzko nagusitasuna ematen diena –haiek dute botere ekonomiko, politiko, erlijiozko, ideologiko eta kulturala-, emakumeak zapaldu eta baztertuz. Itxuraz sexu dimorfismoan oinarritzen da, eta hierarkia (gizonezkoentzat maila handiagoa) eta dikotomia (aurreiritziak eta aurkako kontzeptualizazioak gizonetzko eta emakumezkoentzat) ezartzen ditu pertsonen artean, beren sexuaren arabera. Hortaz, emakume guztien aurka zuzentzen da, zeren patriarkatua setatzen baita emakumeak kulturatik aldentzen, eta ugalketa funtzioaren barnean kokatzen (soilik existitzen dira ama diren aldetik). Horrela ahalik gabe uzten ditu eta parekatzea eragozten da. Egiaz, Patriarkatua aiten boterea da, eta androzentrismoa, sexismoa eta bereizkeria sortzen ditu. Ez da esamolde hau erabili behar Matriarkatuaren aurkako gisa. Matriarkatua teoria historiko mitikoa da; horren arabera, boterea amei ematen zitzaizen, eta horrek ez du ondare nabarmenik utzi inongo kulturatan, antolaketa sozioekonomiko-ideologiko eta politiko gisa (Simón: 1999).

Genero ikuspegia: Emakumeak eta gizonak definitzen dituzten ezaugarriak eta beren antzekotasun eta desberdintasunak espezifikoki fokatu, aztertu eta ulertzea ahalbidetzen du. Ikuspegi horretatik aztertzen dira batzuen eta besteen bizitzako aukerak, beren bizitzen zentzua, beren itxaropen eta aukerak, bi generoen artean gertatzen diren gizarte harreman konplexu eta anitzak; baita instituzioetan eta egunerokotasunean zer gatazkari egin behar dieten aurre, eta zein modutan egiten duten [...]. Ordena patriarkalaren ezaugarri eta mekanismoak xeheki aztertzen ditu, eta esplizituki salatzen ditu bere alderdirik kaltegarri, hondagarri, zapaltzaile eta erogarrienak. Alderdi horiek guztiak sortu dira gizarte egituraren daudelako ekitate gabezia, injustizia eta hierarkia, horiek denak sexu desberdintasunean oinarriturik eta desberdintasun bihurturik (Lagarde: 1996; Conapo: 2000).


Berdintasun planak: Emakumeek gizarteko arlo guztietan aktiboki parte hartzea helburu duten estrategiak. Horretarako zenbait helburu zehazten dira, epe motz eta ertaineko jokoeretan gauzatuko direnak. Jokaera horiek administrazio publikoko entitateak eta gizarte eragileak inplikatzeko dituzte. Jokaeren lurralde eremuaren arabera, badira Europako Batasuneko Berdintasun Planak, Estatukoak, eskualdekoak eta tokikoak.

Generoen arabeko rolak: Rolek adierazten dute pertsona batek gizarte egitura batean betetzen duen tokia. Deskribatzen dute zein eginkizun betetzen duen eta zein zeregin egin behar dituen, eta, horren arabera, eskubide eta betebeharrak batzuk egokituko zaizkio. Generoaren arabeko rolek zehazten dituzte gizonekoei zein emakumeekoei “berezkotzat” jotzen zaizkien eginkizun, zeregin eta jarduerak.

Bereizketa horizontala: Enpleguan, emakumeak lanbide kopuru zehatz batean biltzea (Amorós: 2002).

Bereizketa bertikala: Enpleguan, lanbideen egituraren emakumeak maila apalenetan biltzen dira, eta eliteko postuetan presentzia urria dute (Amorós: 2002).

Generoen sozializazioa: Prozesua da, eta haren bidez gizon eta emakumeek ikasten dituzte kultura zehatz bakoitzak gizon eta emakumeei ezartzen dizkien arau, balore, ohitura, estereotipo eta rolak. Lehen haurtzarotik hasten den prozesua da, eta urteekin finkatzen da. Gizarte instituzioek indartzen dute, esaterako familiak, hezkuntza eta erlijio instituzioek, gizarte hedabideek eta parekoen eta berdinen taldeak (Volio: 1999).



Kronograma / egutegia

1. Fasea, 2005eko azaroa eta abendua:

Plana Herritarren Zerbitzuen Batzordean eta osoko bilkuran aurkeztea, udalbatzak onetsi dezan.

2. Fasea, 2006ko urtarrila-martxo:

Zizur Nagusiko Aukera Berdintasunaren aldeko I. Plana herritarrentzako argitara eman, aurkeztu eta hedatzea.

3. Fasea, 2006ko apirila:

Plana ezartzea eta ebaluatzea.



Planaren ebaluazioa

Ebaluaziorako estrategia orokorrak:

Arlo guztiek urtean egindako lanaren ebaluazioa eginen dute urte bukaeran.

Jardueretan edo zerbitzuetan izandako partaidetza osoa sexuz sexu banatua egon behar da.

Ondoko adierazle hauek aukera emanen digute jarduketa eta programa guztiak ebaluatzeko. Hona hemen:

Implementazioa: Noraino garatu den jarduera edo programa.

Estaldura: Partaidetza neurtzeko adierazlea eta plana noraino iritsi den jakiteko aukera ematen diguten datuak.

Dentsitatea: Egindako programa edo jarduera kopurua eta hedapena.

Barne koherentziako ebaluazioa: Planaren eta egindako jarduketan arteko uztarketa.

Kanpo koherentziako ebaluazioa: Egindako esku-hartze proposamenen baliagarritasunaren funtsa

Inpaktua: ebaluazioaren emaitzen segimendua.

Inpaktua sexuz sexu berezia: Programa, aurrekontu eta erabaki politiko guztiek ondorio desberdina dute, emakumea ala gizona zaren. Izan ere, genero bakoitzak bere beharrak eta bizi baldintzak ditu, eta horrek guztiak badu eragina generoan.

Kontzeptu horiek egindako jarduera, programa eta zerbitzu guztiei aplikatuko zaizkie.

Ebaluazio adierazleak ekintzetan:

1. Eskuorriak, katalogoak eta hiruorrikoak argitara ematea

- Aurrekontua
- Jarduera, noiz
- Argitara emandako edo publizitate bidez zabaldutako kopia kopurua.
- Kopien jasotzaile kopurua
- Jasotzaileen profilak (profesionalak, teknikariak, politikoak, elkarteetakoak, herritarak, e.a.)
- Inpaktu mediatikoa
- Lortutako eragin edo gogobetetze maila: apala, ertaina, altua.

2. Sentsibilizazio kanpainak:

- Aurrekontua
- Jarduera, noiz
- Jasotzaileak
- Estaldura
- Inpaktu mediatikoa (prentsa, irratia, etab.)

3. Udaleko langileentzako prestakuntza ikastaroak emakumearen aldeko ikuspegia lantzeko:

- Aurrekontua
- Jarduera, noiz
- Ikastaro kopurua eta ikastaro bakoitzeko ordu kopurua

- Ikastaroetan parte hartzen duen alor kopurua
- Ikastaroa ematen duen profesional kopurua
- Emakume eta gizon kopurua
- Partehartzaileen profila
- Ikastaroaren balorazioa: gogobetetze maila, erabilgarritasun maila, ezarpen maila (ezagutza horiek eguneroko lanean praktikan jartzea)

4. Alor bakoitzak antolatzen dituen jarduerak: lan tailerrak, ikastaroak...

- Aurrekontua
- Jarduera, noiz
- Ikastaroa egin aurreko informazioa
- Ikastaro kopurua eta ikastaro bakoitzeko ordu kopurua
- Ikastaroetan parte hartzen duen alor kopurua
- Ikastaroa ematen duen profesional kopurua
- Emakume eta gizon kopurua
- Partehartzaileen profila
- Ikastaroaren balorazioa: gogobetetze maila, erabilgarritasun maila, ezarpen maila (ezagutza horiek eguneroko lanean praktikan jartzea)
- Egin den insertzio kopurua, behin tailerra bukatuta